

# Euskal Herriko gizarte aldakuntzak eta etorkizuneko erronkak

(Social transformations and future challenges in the Basque Country)

Martínez de Luna, Iñaki  
Euskal Herriko Unibertsitatea  
Soziologia 2 Saila  
Sarriena, z/g  
48940 Leioa  
e-posta: cjpmapei@lg.ehu.es

---

*Euskal Herriko gizarte aldakuntzak eta etorkizuneko erronkak ditu aztergai txosten honek, kontutan hartuta aldakuntza horiek ingurune historiko inoiz baino globalago batean kokatzen direla. Egindako azterketan, materialazko eta izpirituzko aldaketa-eragileak bereizten dira, beti ere bien arteko harremana eta elkarrekiko eraginaz ohartaraziz. Materialazko bost faktore aztertzen ditu txostenak (demografia, ekonomia, teknologia, ingurugiroa eta bizi-baldintzak) eta izpirituzko beste bost (politika instituzionala, kultura politikoa, hezkuntza, kultura orokorra eta euskara). Aldaketa-eragile horien inguruko diagnostia oinarritzat hartuta, gaurtik aurrera euskal gizarteak bidean topa ditzazkeen erronka nagusiak aztertzen ditu egileak*

*Giltza-Hitzak: Demografia. Ekonomia. Teknologia. Ingurugiroa. Bizi-baldintzak. Politika instituzionala. Kultura politikoa. Hezkuntza. Kultura orokorra. Euskara.*

*La ponencia trata de los cambios sociales y retos del futuro en Euskal Herria, teniendo en cuenta que estos cambios se producen en el entorno histórico más global que se haya conocido jamás. En el análisis propuesto, se distinguen factores de cambio materiales y espirituales, poniendo de relieve la relación entre ambos y su influencia mutua. La ponencia analiza cinco factores materiales (demografía, economía, tecnología, medio ambiente y condiciones de vida) y otros tantos factores espirituales (política institucional, cultura política, educación, cultura general y euskara). Basándose en el diagnóstico en torno a estos factores de cambio, el autor analiza los principales retos con los que la sociedad vasca puede encontrarse de hoy en adelante.*

*Palabras Clave: Demografía. Economía. Tecnología. Medio ambiente. Condiciones de vida. Política institucional. Cultura política. Educación. Cultura general. Euskara.*

*L'exposé traite des changements sociaux et des défis du futur en Euskal Herria, en tenant compte que ces changements se produisent dans l'environnement historique le plus global que l'on n'ait jamais connu. Dans l'analyse proposée, on distingue deux facteurs de changement matériels et spirituels, en mettant en relief la relation qui existe entre ces deux facteurs et leur influence mutuelle. L'exposé analyse cinq facteurs matériels (démographie, économie, technologie, environnement et conditions de vie) et autant de facteurs spirituels (politique institutionnelle, culture politique, éducation, culture générale et euskera). En nous basant sur le diagnostic concernant ces facteurs de changement, l'auteur analyse les principaux défis que la société basque peut rencontrer dorénavant*

*Mots Clés: Démographie. Economie. Technologie. Environnement. Conditions de vie. Politique institutionnelle. Culture politique. Education. Culture générale. Euskera.*

XV Congreso de Estudios Vascos: Euskal zientzia eta kultura, eta sare telematikoak = Ciencia y cultura vasca, y redes telemáticas = Science et culture basque, et réseaux télématiques = Basque science and culture, and telematic networks (15. 2001. Donostia). – Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2002. - P 531-549. - ISBN: 84-8419-949-5.

## 1. SARRERA

### Helburua

Euskal Herriko gizarte aldakuntzak eta etorkizuneko erronkak ditugu aztergai, eta aldakuntza horiek ingurune historiko eta inoiz baino globalago batean kokatzea ahaztezina da. Halere, txosten honetan Euskal Herriko barren dinamikari eutsiko diogu gehienbat, ingurune globaleko indarrei darizkien eraginez isolatzea posiblea den neurrian.

Erronka horri aurre egiteko ahaleginetan aurreratu genbiltzala, kaleratu berria zen Patxi Juaristiren lanarekin egin dugu topo (Juaristi 2001), eta lan horrek laguntza handia eskaini digula aitortu behar dugu; beraz aintzakotzat hartuta, beraz, txosten honetan informazio hori osatzen eta gaurkotzen saiatu gara, hausnarketa eta gogoeta propioak eskainiz.

### Berriazko mugak eta zailtasunak

A) Euskal Herriaz hitz egiteko zailtasunak: Euskal Herriaren zatiketa juridiko-politikoak eragin nabarmenak ditu gure analisi eta gogoeta hauetan:

- Informazioa eskuratzeko zailtasuna.
- Informazio komun eta ezkongarriaren urritasuna.

Beraz, ikuspegi orokorra mantentzeko zailtasunak eta lurraldetasunaren aldetik kontraesan ugarietan erortzea dira guretzat muga objektibo batzuk.

B) Baina badaude beste zailtasunak ere, kulturalak edo-eta kontzeptualak, hain zuzen.

Izan ere, norberak bere egoera, ikuspuntu geografiko, tenporal eta kulturaletik gauzak aztertu, ulertu eta interpretatzeko joera badu inkontzienteki; eta, horren ondorioz, bi muga edo arrisku topa ditzakegu:

- Euskal Herriaren heterogeneotasuna ahaztu eta errealtatea norberaren lurraldearen egoeratik soilik aztertu eta ondorioak, berriz, herri osora orokortu, etnozentrismo itsu baten eskutik:

“Hau da, EAE-ko datuak Euskal Herrikoak balira bezala agertzen direla eta, ondorioz, Euskal Herriaren irudi okerra edo-eta soslaitua ematen dela”. (Juaristi 2001: 46).

- Bestetik, sortu eta agertu berriak diren jorrek gure kultur eta zientzia kategorietan oraingoz ez dute leku garbirik:

“Quisieramos comprender las peculiaridades de nuestro tiempo pero nos lo impide un lenguaje y unos modelos inservibles. Los conceptos de que disponemos para describir y calificar no son apro-

piados para el mundo plural, amalgamado, irregular, cambiante y discontinuo en el que vivimos”. (Innerarity 2001: 54-55).

Azken muga hori agertzen da gure aztergaia dinamikoa delako, eta askotan errealtateko hainbat elementu *erakitze* edo *instituzionalizatz*e prozesuan (zentzu soziologiko batean) murgilduta dagoelako (Unzeta 2001: 2,4).

Gure saio honetan hainbat planteamendu *erakitze* eta *instituzionalizatz*e egoeretan agertu dira, eta, arestian esan bezala, horrek askotan mugatu-ko du ideiak zehaztasun osoaz eskaintzea.

### Aztergai diren faktoreak

Juaristik Euskal Herria globalizatzearen gaineko azterketan *materiazko* eta *izpirituzko* aldaketa-eragi-leak bereizten ditu, beti ere bion arteko harreman eta elkarrekiko eraginaz ohartaraziz:

“Gizarteen izanbide edo nortasunari eragiten dieten eragileen artean, materiazko izatea dutenak (orografia, klima, demografia, teknologia...) eta izpirituzkoak (erlijioa, baloreak, iritziak...) bereizi daitezke. Gizabanakoen zein gizarteen baitan eremu bi hauen artean ematen den loturaren ondorioz, faktore mota bakoitzaren eragina eta garrantzia bereiztea ez da erraza izaten”.

Egile honek materiazko faktoreen artean hiru lantzen ditu: demografia, ekonomia eta teknologia; eta izpirituzkoen artean beste hiru: politika, kultura eta baloreak (Juaristi 2001: 41-42).

Hemen, Juaristiren terminologiari jarraiki eta eduki mailan ere neurri handian bere eskema aintzakotzat hartuz, *materiazko* bost faktore aztertuko ditugu (demografia, ekonomia, teknologia, ingurugiroa eta bizi-baldintzak) eta *izpirituzko* beste bost (politika instituzionala, kultura politikoa, hezkuntza, kultura orokorra, eta euskera).

Haatik, mota honetako lanetan gertatu ohi denez, eremu horietaz guztietaz diagnosi oso bat egin partez, aldakuntzarako ardatzak eta eragilerik garrantzitsuenak soilik aipatuko ditugu.

## 2. EGOERA ETA JOERAK

### 2.1. Demografia

Juaristik adierazten duenez, Euskal Herriko joera demografikoak oso ezberdinak izan dira XX. mendean zehar, lurraldeen arabera. Adibidez, 1900etik 1991ra bitartean biztanleria ia-ia hirukoiztu bazen ere 1.084.616 biztanletik (1900. urtean) 2.882.766 biztanlera (1991n) igaroz, hortik aurrera hazkunde hori zeharo eten da *hazkunde negatiboa* izatera iritsiz.

Joera demografiko horiek, alabaina, ez dira geografikoki homogeenak izan eta tokian tokiko

berezitasunak sendo agertu dira: industria eta zerbitzu-eremuak<sup>1</sup> garatu dituzten eskualdeak *versus* nekazaritzakoak.

Industria eta zerbitzu franko dituzten eremuetan biztanleriak gora egin du, horien artean Bizkaia, Gipuzkoa, Araba, Nafarroa eta Lapurdiko eskualde ugari sartzen da; halare, egon badaude lurralde horietan ere dinamika horretatik kanpo gelditu diren zonaldeak. Bestalde, nekazaritza-giroan jarraitu dutenen artean Zuberoako eta Nafarroa Beherako eskualde gehienak daude, eta bertan biztanleriak behera egin du XX. mendean (Juaristi 2001: 43-45).

Ikuspuntu historikoaz aipamen labur hori behin eginda, ondoren egungo egoera eta joera demografikoak landuko ditugu.

<b>EGUNGO EGOERA ETA JOERA DEMOGRAFIKOAK</b>	
Euskal Herriko biztanleria: 2.855.000 pertsona <sup>2</sup> :	
• EAE:	2.099.829 biztanle
• Nafarroa:	530.819 biztanle
• Iparraldea:	262.300 biztanle
Euskal Herriko biztanleriaren dentsitatea (1997) <sup>3</sup> :	
• EAE:	291 biz./km <sup>2</sup>
• Nafarroa:	51 biz./km <sup>2</sup>
• Pyrénées Atlantiques(Iparraldea):	78 biz./km <sup>2</sup>
5.000 biztanle edo gutxiagoko herritan bizi den Euskal Herriko biztanleriaren proportzioa <sup>4</sup> :	
• EAE:	%10,7
• Nafarroa:	%38,9
• Aquitaine (Iparraldea):	%50,4
Euskal Herriko biztanleriaren bilakaera 17 urtez (%) <sup>5</sup> :	
• EAE (1980/97):	-5,3
• Nafarroa (1980/97):	+2,2
• Iparraldea(1982/99):	+10,9
Seme-alaben batez besteko kopurua, emakumeko <sup>6</sup> : (ordezkatzeta-tasa 2,1ekoa da)	
• EAE:	0,9
• Nafarroa:	1,6
• Pyrénées Atlantiques(Iparraldea):	1,5
'Hirugarren Munduko' herrietatik datozkigun etorkinak gero eta ugariagoak dira.	

1. Juaristik industria eta turismoaz hitz egiten badu ere, guk nahiago dugu industria eta zerbitzuez berba egitea, azken honetan turismoko zerbitzuak ez ezik industria eta aisialdiaren inguruan garatu diren garrantzi handiko azpisektoreak ere bertan bilduz.

2. EAE eta Nafarroako datuak: Eustat-INSEE-Nafarroako Gobernu (2000); Iparraldekoak: Garapen Kontseiluak (1999).

3. Eustat-INSEE-Nafarroako Gobernu (2000).

4. Eustat-INSEE-Nafarroako Gobernu (2000).

5. EAE eta Nafarroa, Eustat; Iparralde, Garapen Kontseilua.

6. Eustat-INSEE-Nafarroako Gobernu (2000).

### AURRERA BEGIRAKO JOERA DEMOGRAFIKOAK

EAEn<sup>7</sup>:

- 'Ekonomikoki ez-aktibo' gorakada (Dependentzia Orokorraren Indizea: 1975ean %81 eta 1995ean %56, baina 2010ean %59).
- 2010. urtean EAEk 2.039.000 biztanle izango ditu, 1983an baino 100.000 gutxiago.
- 2010. urtetik aurrera emakumezkoak ugariagoak izango dira gizonezkoak baino.
- 2001. urtetik aurrera, eta lehenbiziko aldiz, adineko jendea ugariagoa izango da gaztea baino.

Etorkinak Euskal Herrian gero eta askoz ugariagoak izango dira.

Datuak ikusita, Euskal Herria demografikoki oso heterogeneo eta desorekatua da, eta joera demografiko ezberdinak adierazten dira:

- Biztanle-dentsitate handiko lurraldeak nahiz urrikoak dira; hiritan bilduak ala herritan banatuta; hazkundea adierazten dutenak eta biztanleak galtzen doazenak.

- Espainako eskualdeetatik Euskal Herriko Hegoaldera lan bila etorri zaizkigun etorkinek eta Frantziatik Iparraldera hurbiltzen diren jubilatuek Euskal Herriko heterogeneotasuna ugartu dute hamarkada batzuetan.

- Azken urteotan Euskal Herriko berezko hazkundea ia hutsa da lurralde guztietan eta baita migrazio-tasa EAEn eta Nafarroan, baina Iparraldean migrazio-tasa positiboa da (0,46koa), tartean frantses jubilatuen etorrera delarik.

- 'Hirugarren Munduko' herrietako etorkin berrieke gure kulturarekiko duten distantzia handia da, eta horrek gizartearen heterogenotasun kualitatiboa areagotzen dar, batzuetan azpi-kulturak edo ghettoak sortzeraino.

Bestalde, aldaketa soziokulturala eta ekonomikoa direla medio, emakumezkoak lan merkatuara hurbildu dira, ugaltze-tasak izugarri murriztuz, horren ondorioz.

## 2.2. Ekonomia

Ikuspuntu historikotik begiratuta, Bizkaia eta Gipuzkoa XIX. mendean industrializatu ziren, eta Araba eta Nafarroa XX. mendean. Iparraldean, aldiz, eta industrializazioa gauzatu edo sendotu ezean, abeltzaintza, nekazaritza eta arrantzak garrantzi handiagoa izan dute; halare, ezin da ahaztu turismoak Iparraldean duen garrantzia, etekin ekonomikoaren %20 hortik baitator (Juaristi 2001: 55, 5-60).

Azken urteetan Euskal Herriko eredu ekonomikoak jasan dituen aldaketen ondorioz, gaur egun hirugarren sektorea da nagusi, industriari aurrea hartuta.

7. Gallastegi (2001).

<b>EKONOMIAREN EGOERA ETA JOERAK<sup>8</sup></b>
Euskal Herriko populazio aktiboaren pisua sektore ekonomikoen arabera <sup>9</sup> : <ul style="list-style-type: none"> <li>• Lehen sektorea: %5-%6</li> <li>• Bigarren sektorea: %38</li> <li>• Hirugarren sektorea: %56</li> </ul>
Aktibitate tasa <sup>10</sup> : <ul style="list-style-type: none"> <li>• EAE: %53,2 Gizonezk.: %65,6 eta Emakumezk.: %41,5</li> <li>• Nafarroa: %51,3 Gizonezk.: %64,8 eta Emakumezk.: %37,2</li> <li>• Aquitaine (Iparraldea): %54,5 Gizonezk.: %62,9 eta Emakumezk.: %47,6</li> </ul>
Langabezia <sup>11</sup> : <ul style="list-style-type: none"> <li>• EAE: %20,2 Gizonezk.: %14,2 eta Emakumezk.: %29,2</li> <li>• Nafarroa: %10,6 Gizonezk.: %6,7 eta Emakumezk.: %15,6</li> <li>• Pyrénées Atlan. (Iparraldea): %10,3 Gizonezk.: %8,1 eta Emakumezk.: %13,2</li> </ul>
1989/1998ko epean emakumezkoen lan-tasa %2-%3 bitartean igo da Hegoaldean eta %0-%1 bitartean Iparraldean <sup>12</sup> .
EAEko ekonomia zaharberrituta: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Siderurgia eta industria tradizionalaren gainbehera (70-90. hamarkaden artekoa) gaindituta.</li> <li>• Europako merkatuarekin bat egin da era arrakastatsuan eta industriari ekoiztutakoaren %60 kanpoan saltzen da.</li> <li>• Arlo publiko propioa sortu da eta eskumen fiskalak berreskuratu (1.300.093 mila-pezetetako ondasun eta zerbitzuak).</li> </ul>
Azken sei urteetako egoera ekonomiko osasuntsua: <ul style="list-style-type: none"> <li>• EAEko BPGaren hazkundea %3-%4koa, eta 1995ean Estatuarekiko tasa 119,4koa bazen ere 2000n 122,5 izatera iritsi da eta Nafarroakoa 125,7ra<sup>13</sup>.</li> <li>• Langabezia tasa beherantz, baina oraindik altua da (1960: %2; 1989: %18 eta 1999: %14).</li> <li>• Arlo publikoaren finantzak osasuntsu.</li> </ul>
Lan merkatuaren baldintzen aldaketa: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Aldi baterako lan-kontratuak: Hegoan, 2001eko abuztu arteko kontratuen %8,8 finkoak<sup>14</sup>.</li> <li>• Lanaldi partzialeko kontratuak ere hazi dira.</li> <li>• Kualifikaziorik gabeko langileak, formatuekin ordezkatu: etenik gabeko formazioa behar.</li> </ul>

<b>EKONOMIAREN AURRERA BEGIRAKO JOERAK<sup>15</sup></b>
Globalizazioak dakarren aldaketa teknologikoa.
Etorkizuneko ekonomia-arlorik eraginkorrenak komunikabideak, finantza-zerbitzuak eta informazioa izango dira.
Oraingo bizitza-kalitateari eutsi ahal izateko 'giza kapitalaren' balioa bermatu behar dugu: hezkuntza, etenik gabeko formazioa eta I+G.
Ekonomia Berrian (Pisurik Gabeko Ekonomia) txertatzeko ahaleginak egin behar dira.
Euskadin zertxobait atzeratuta gabilta teknologia berrien erabileran.
Erronka nagusia Ezagutzaren Gizartean txertatzean omen datza <sup>16</sup> .

Euskal Herriko Hegoaldeko egoera makroekonomikoa eroso da, baina euren baldintzak aldakorak edo oreka ezegonkorrekoak dira:

- *Eredu ekonomikoaren aldaketa*: lehenengo sektorearen (arrantza eta nekazaritzaren) gainbeherak oraindik ez du ondoa jo, eta ondorioz hortik bizi diren "herri, eskualde eta pertsonak sektore honetarik bizitzeko aukerarik gabe gelditzen ari dira, datozen belaunaldiei ere bizibide hau itxiz." (Juaristi 2001: 5-57).

Industria tradizionalak lanpostu asko galdu ditu XX. mendearen amaiera aldean jasan duen krisialdi eta ekonomiaren globalizazioaren ondorioz, enpresa asko atzerriko kapitalaren eskuetara pasa dira eta azpisektore gehienetan kontzentrazio handia gertatzen ari da (Juaristi 2001: 58).

Ildo honetatik, industria tradizionalaren gainbeheraren aurrean EAEk izan duen adorea eta kementa azpimarratu behar dira: hamarkada larri batzuk pasa ondoren, lurralde honek adierazle makroekonomikoetan lehen postuak berreskuratu ditu Espainia mailan. EAEkoa ez ezik Nafarroako ekonomia ere indartsu dabil.

*Hirugarren sektorearen hazkundea*: Merkataritzan oligopolioak indartzen ari dira ('azalera handiko' nazioarteko enpresak ugarituz eta denda txiki asko desagertuz); turismoa (indartsu Iparraldean eta oraindik apalki Hegoaldean) eta merkataritza gora doaz (Juaristi 2001: 59-61). Bestalde, handituz doan bestelako zerbitzuen garrantzia ere ezin da ahaztu: enpresentzako zerbitzuenak, besteak beste.

Euskal Herriko oraingo baldintza sozioekonomikoak honela labur daitezke:

8. Beste informazio-iturri zehatzik aipatu ezean, iturri nagusia: Gallastegi (2001).

9. Juaristi (2001: 55).

10. Eustat-INSEE-Nafarroako Gobernua (2000).

11. Eustat-INSEE-Nafarroako Gobernua (2000).

12. Eurostat (2000: 56).

13. El Correo (2001-7-13).

14. El Periódico de Álava (2001-09-05).

15. Beste informazio-iturri zehatzik aipatu ezean, iturri nagusia: Gallastegi (2001).

16. Garrido (2001: 43)

- *Langabezia*: lana ugariagoa da baina oraindik ere ez dago denontzat.

- *Lan baldintzak*: ekoizpen-kostuak murriztea dela-eta, lan baldintzak oso eskasak dira langile berrientzat (aldi bateko kontratuak, soldata eskasak, ziurtasun neurri eskasak...).

- *Sexuen arteko aldea*: emakumezkoek bi ezberdintasun dituzte gizonenak: aktibitate-tasa baxuagoa eta langabezia-tasa handiagoa. Diferentzia horiek, halare, 25 urtetik gorakoan artean agertzen dira nagusiki, adin horretatik beherakoan artean gizon eta emakumezkoen zifrak hurbiltzen direlarik (Eusko Jaurlaritzaren 2001: 9).

### 2.3. Teknologia

Egun teknologiak duen garrantzia kontuan hartuta, Euskal Herriko gizartearen diagnosi eta aurreikuspen hauetan ezin dugu garapen teknologikoa alde batera utzi.

IKERKETA ETA GARAPENA (I+G)
I+Gren egoera 'epela' Euskal Herrian, I+Gn gastatutakoa BPGri dagokionez: <ul style="list-style-type: none"> <li>• 1997an I+Gn gastatutakoa handiagoa zen EAEn (%1,25) Espainian baino (%0,87), baina Nafarroan txikiagoa (%0,82)<sup>17</sup>.</li> <li>• Akitanian ere I+Gn gastatutakoa %1-%2 bitartekoa zen<sup>18</sup>.</li> </ul>
Europako eskualdeei erreparaturik, I+G/BPG ratioaren arabera EAE eta Aquitania %1-%2 bitarteko multzoan kokatzen dira eta Nafarroa zertxobait beherago (%0,5-%1ekoan) <sup>19</sup> .
EAEko I+G/BPGren bilakaera <sup>20</sup> : <ul style="list-style-type: none"> <li>• Hazkunde handia izan du: 1977an %0,069 eta 1998an %1,2.</li> <li>• Eusko Jaurlaritzaren 2001eko 'Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza' planaren arabera: 2004an %1,7 izango da.</li> </ul>

Hona hemen EAEko egoeraz Eustatek dioena:

"...1998an, Euskal AEk bere ekonomi posizioagatik egokituko litzaiokeen adina baliabide eskaini dio I+Gri, eta aurrea hartu die zenbait herrialderi, halanola Norvegia, Danimarka edo Irlandari." (Eustat: 1999).

Eta Juaristi horrela mintzatzen zaigu:

"I+Gra Europako beste herrialde batzuetan baino gutxiago bideratzen bada ere (Europako Batasunean

BPG-ren %1,8 zuzentzen da batenaz beste I+Gra), Hego Euskal Herriaren Estatuko beste erkidego gehienetan baino gehiago gastatzen da arlo horretan, eta, ondorioz, beste erkidegoek baino abantaila konpetitibo gehiago dira. Gainera I+Gean agiten den gastua gora doa urtetik urtera." (Juaristi 2001:64-65).

### Informazioaren eta Komunikazioen Teknologia (IKT)

Teknologia berrien baitan, ekonomia arloan zein familian, bizitza publikoan edo-eta pribatuan, IKT-k duten pisua gauza jakina da, eta horrexegatik hemen ere aipamen berezia merezi dute:

"Etorkizunean gizartearen aberastasuna garapen teknologikoen arabera egongo dela esan badugu ere, badirudi teknologia batzuk beste batzuk baino garrantzi estrategiko handiagoa izango dutela. Itxura guztien arabera, komunikazioarekin zerikusia izango duten teknologia mundu globalizatu honen ezinbesteko zutabe bihurtuko dira." (Juaristi 2001:65).

10 enplegatu eta gehiagoko enpresak IKTko hornikuntzaren arabera (establezimenduen %) <sup>21</sup>	Internet	Intranet	Extranet	Web-orria	EDI
Euskal AE	76,6	33,3	10,1	29,1	32,7
Danimarka	85,0	35,0	18,0	71,0	39,0
Finlandia	94,0	38,0	25,0	76,0	24,0
Norvegia	77,0	31,0	14,0	57,0	27,0
Suedia	88,0	44,0	19,0	73,0	17,0

EAEko enpresek duten hornikuntza mota honetako mailaz horrela dio Eustatek:

"...10 enplegatu eta gehiagoko euskal enpresek sare informatikoetan eta datuen elkartruke elektronikoetan (EDI) datuen hornikuntza-maila eta herri eskandinaviarretako (eta, zehazkiago, Norvegiako) pareko enpresek dutena berdintsuak direla." (Eustat 2001).

Bestalde, merkataritza txikizkari edo xehekarian dagoen posta elektronikoaren erabilera Espainiak duenarekiko (%6,8) baino hedatuagoa omen dago Hegoaldean: Kanaria irlen (%12,5) ondoren Nafarroa (%11,1) eta EAE (%10,4) bigarren eta hirugarren lekuetan kokatzen dira, 2001eko bigarren hiruhilekoko datuen arabera<sup>22</sup>.

17. Juaristi (2001: 64).

18. Eurostat (2000: 64).

19. Eurostat (2000: 64).

20. Jaureguizar (2001: 125, 133).

21. Eustat (2001/06/21eko prentsa-oharra); Erakunde honen iturriak ondoko hauek izan dira: Eustat ESI -enpresak-2000 eta Use of ICT in Nordic Enterprises 1999-2000.

22. Deia (2001-8-25), INEren datuak aipatuta.

**Etxeguneko hornikuntzak**

<b>15 urte eta gehiagoko biztanleria etxeguneko hornikuntzen arabera<sup>23</sup></b>				
Hornikuntzak	EAE 2000/IV	EAE 2000/II	Europar Batasuna 2000/II	Espainia 2000/II
<b>PCari lotutako sistemak</b>				
• Ordenagailua	41	37	35	34
• CD-Roma	34	27	25	21
• Internet	14	11	18	10
<b>TBri lotutako sistemak</b>				
• Antena parabolikoa	19	14	21	15
• Ordainpeko telebista	14	12	8	12
• Kable bidezko teleb.	1	2	34	11
<b>Beste sistema batzuk</b>				
• Telefono mugikorra	65	49	55	57
• Faxe	1	1	9	4

“Aldi horri (2000. urteari) buruzko datu guztien azterketak egiaztatzen du euskal familiek europarrak gainditzen dituztela, ordenageilueta eta CD-Rometan. Ez da gauza bera gertatzen Internetarako sarrerekin (...)”.

Telefono mugikorrei dagokienez, EAE atzetik zegoen bigarren hiruhilekoan (ehuneko 5 puntu gutxiago) eta gaur egun aurretik jarri da (10 puntu gehiago), nahiz eta baliteke Europako Batasunak ere horren pareko hobekuntza lortu izana.” (Eustat 2001/02/28).

Hau guztia ikusita garapen teknologikoaren egoera horrela labur daiteke EAERI dagokionez, bederen:

- Adierazleek argi uzten dute eremu horretan erantzukizuna duten eragileak (enpresak, unibertsitateak eta administrazio publikoak) ekimen horren garrantziaz jabetu direla eta, astiro-astiro, teknologia guztiz zaharkiturik zerabilkien industria batetik Europako estandarrekin ia homologatua dagoen egoerara jauzi egin dela hamarkada gutxitan:

“La Industria de las nuevas tecnologías genera el 4,4% del PIB vasco (...) porcentaje muy cerca de la media europea, situada en el 4,7%”. (@EUSKADI 78).

- Gizartea ere ildo beretik doa: European aitzindariak diren herrialdeen atzetik, baina ez azkeneko postutan, teknologia berrien munduan ari gara sartzen.

Baina batzuen ustez horien aldeko apustu garbirik ez omen dugu egiten; horrela, Internet-ez ari dela, hauxe dio Juaristik:

“...oraindik ez da gurea bezalako estaturik gabeko herrirentzako mundurako leiho honek izan ditzakeen garrantzi estrategikoari buruzko behar bezalako

gogoetarik egin eta, ondorioz, atzeraturik gaude gertatzen ari den iraultza teknologikoaren aurrean”. (Juaristi 2001: 66).

“...podemos decir que hemos superado la crisis industrial, que vamos recuperando posiciones de progreso económico. Aun con todo no es suficiente. El principal reto de Euskadi es adaptarse a las reglas de la Sociedad del Conocimiento”. (Garrido 2001: 43).

Garapen teknologikoaren inguruan zapore gazi-geza gelditzen zaigu, beraz, baina egoera hobetzeko hainbat neurri ari omen dira indarrean jartzen.

**2.4. Ingurugiroa**

Soilik EAEko informazioa aurkeztuko da ondoren, baina lurralde hori Euskal Herriko industrializatuena eta jendeztatuena denez, ingurugiroaren arazoak biziago agertuko zaizkigu horretan, oro har, Nafarroan edo Iparraldean baino.

**INGURUGIROA<sup>24</sup>****EAEko ingurugiroaren arazoak (1999an):**

- Atmosferaren kutsadura: industriak sortutakoa %40 jaitsi bada 10 urteetan, ibilgailuena gero eta handiagoa da (kutsaduraren %70). EBren araudiaren mugak Bilbo metropolitanoan, Donostialdean eta Deba Garaian gaindituko dira 2001ean.
- Uraren kutsadura: ibaien %58k daramaten ura ezin da kontsumitu; %75ean ez dago arrainik eta %6an soilik bainatu daiteke. Ibaietako kutsadura Kantauri itsasoak jasaten du.
- Lurraren kutsadura: 6.500 hektarea kutsatuta, 5.789 lur-eremutan. Garbiketa oso garestia da eta horietako batzuk ezin dira garbitu (lindanea, besteak beste).

**EAEko ingurugiro-politika:**

- Nahiz eta azken 20 urteotan urrats handiak eman diren (isuriak kontrolatu, birziklapena bultzatu eta hondakinak gutxitu), kutsaduraren prebentzioak lan mardula du oraindik.
- Seguritate-gelak eraiki garbitu ezinezko kutsadurarako.
- Ingurugiro-heziketa bultzatu: gizartean, araututako hezkuntzan...
- Legegintza-ekimenak: ‘EAEko Ingurugiroaren Babeserako 1998ko 3. Lege Orokorra’. Lege honek jasotako hainbat puntu garatzeke daude.
- 2000. urtean ‘EAEko Ingurugiro Estrategiaren Agiria 2000-2012’ kaleratu du Eusko Jauriaritzak<sup>25</sup>.

**Aurrera begirako erronkak**

- Jasangarritasuna eredu ekonomikoan txertatu.
- Hirietako ingurugiroa hobetu.
- Dagoen legedia indarrean jarri.
- Gizarte osoko erantzukizun amankomuna bultzatu.
- Ekoizpen eta kontsumo joerak aldatu.

24. Besterik aipatu ezean, informazio-iturria: Rekondo (1999).

25. Eusko Jauriaritza (2000B).

23. Eustat (2001/02/28ko prentsa-oharra).

Gallastegiren ustez, EAEn aurreko hamarkadetan kaltetutako ingurumenaren berreskurapen geldo orain ari da lortzen eta garapen jasangarriaren onarpena gero eta zabalagoa da. (Gallastegi 2001)

## 2.5. Gizarte adierazleak

Ez da batere erraza gizarte baten ongizatearen adierazleak aurkitzea; are gutxiago hiru lurralde politiko-administratiborako komunak eta baliagarriak direnak.

<b>ABERASTASUN ETA GIZARTE ADIERAZLEAK<sup>26</sup></b>	
<b>BPG biztanleko (ECUS):</b>	
• EAE:	16.702
• Nafarroa:	17.755
• Aquitaine (Iparraldea):	16.668
<b>Ibilgailuak (Turismoak eta kamioiak edo furgonetak/1.000 biz.):</b>	
• EAE:	351 turismo
• Nafarroa:	419 turismo
• Pyrénées Atlantiques (Iparraldea):	518 turismo
<b>Bizi-itxaropena (urtetan):</b>	
• EAE: Gizonezkoak: 74,2 eta Emakumezkoak: 82,4	
• Nafarroa: Gizonezkoak: 74,8 eta Emakumezkoak: 81,5	
• Pyrénées Atlantiques (Iparraldea): Gizonezkoak: 74,7 eta Emakumezkoak: 82,3	
<b>Haurren heriotza-tasa (1.000 jaiotza.):</b>	
• EAE:	4,4
• Nafarroa:	4,7
• Pyrénées Atlantiques (Iparraldea):	4,7
<b>Ospitale-oheak (1.000 biz.):</b>	
• EAE:	2,7
• Nafarroa:	3,6
• Pyrénées Atlantiques (Iparraldea):	4,6
<b>Farmaziak/Botikak (1.000 biz.):</b>	
• EAE:	0,4
• Nafarroa:	0,6
• Pyrénées Atlantiques (Iparraldea):	0,4
<b>EAEko ongizate eta zerbitzu publikoen egoera erosoak:</b>	
• Hezkuntza eta osasun-zerbitzu publikoak nahiko onak; azpiegitura gaurkotuak daude; jubilatuen pensioak inoiz baino altuagoak eta zerbitzuak inoiz baino ugariagoak <sup>27</sup> .	
• 1999ko gizarte-zerbitzuetako gastua BPGaren %1,7koa izan zen (biztanleko 49.608 pta.) eta gorantz doa (1989an BPGren %1,3) <sup>28</sup> .	
• Halere mantenamendu gehi pilaketa pobrezien tasa biztanleriaren %5,4 zen 2000n <sup>29</sup> .	

**Aurrerapausoak gertatu arren, sexuen arteko ezberdintasunek diraute; politikan adibidez:**

- EAEko Legebiltzarreko emakumezkoen pisua %6,7 zen 1980an eta %33,3 2001ean<sup>30</sup>.
- Nafarroako Parlamentuko emakumezkoen pisua %24 zen 1999an<sup>31</sup>.

**Giza eta herri eskubideak sarri urratzen dira:**

- Hilketak, erasoak, mehatxuak, tratu txarrak, presoek sakabanaketa...
- Gutxiengo kultural, linguistiko eta politikoekiko errespetu falta; herriari hitza kentzea.

Hemen erabili diren adierazleek ondoko ondorioak ateratzera garamatzate:

- Berezitasun ekonomikoak alde batera utzita, aberastasun material eta bizi-baldintza orokorrak oso maila antzekoak omen dira Euskal Herriko hiru lurraldeetan.

- Biztanleriaren gehiengoak -ez denek- bizi-baldintza erosoak ditu, Europako batez bestekotik oso antzekoak, hain zuzen.

- Baliteke Iparraldeko kontsumo maila (ibilgai-luen proportzioa, adibidez) eta baita zerbitzuen ekipamendua ere (ospitale-oheen proportzioa) zertxobait altuagoak izatea Hegoaldean baino; eta Hegoaldean bertan, Nafarroa garatuagoa egongo litzateke EAE baino.

- Hegoaldeko parlamentu bien osaketaren datuek emakumezkoen bazterketa argi islatzen dute, eta emakumezkoek gizonekiko dituzten aktibitate-tasa baxuagoak eta langabezia-tasa handiagoak ere bai (ikus 2.2 puntua); azken hauek, nabarmenki larriagoak dira Hegoaldean Iparraldean baino.

Hori guztia kontuan hartuta, susma daiteke Iparraldeko gizarte modernizatuagoa dela Hegoaldekoa baino. Halere, oso kontzientek gara halako ondorioak ateratzek dituen arriskuez.

Egoera ekonomiko oparoa ezinbestekoa da gizarteak bizi-baldintza erosoak izan ditzan, baina oparotasun makroekonomikoak ez du bermatzen aberastasunaren banaketa orekatua. Zentzu horretan, ezin dugu ahaztu EAEko biztanleriaren %5,4 mantenamendu edo pilaketako pobrezia egoeretan kokatzen dela; bestalde, (eta zifra zehatzik ez badugu aurkitu ere) Iparraldea Frantziako eskualde behartsuenetakoen artean dagoela adierazten dute Chambaz eta Legris-ek<sup>32</sup>.

Bukaerarako nahita utzi dugu, alabaina, Euskal Herriko gizarte baldintzek duten gabeziarik larriena: giza eta herri eskubideen etenik gabeko urraketa,

26. Bestelakorik zehaztu ezean, iturria: Eustat-INSEE-Nafarroako Gobernu (2000).

27. Gallastegi (2001).

28. Eustat (2001/07/11ko prentsa-oharra).

29. Eusko Jaurlaritz (2000A).

30. <http://www.euskadi.net/elecciones/>

31. <http://www.parlamento-navarra.es/>

32. Chambaz eta Legris (1997).

hain zuzen. Ez du zentzurik, baina, horiek zeintzuk diren hemen deskribatzen hastea; soilik esan, biktima asko eta sufrimendu eta injustizi ugari dagoela, eta egoera horrek zuzenean kaltetuak direnen -eta baita euskal gizarte osoaren- bizitza kalitatea zeharo mugatzen duela. Euskal Herriak aurrera egingo badu, gabezia odoltsu eta mingarri hori behin-betiko gainditu behar du.

## 2.6. Hezkuntza eta heziketa

ARAUTUTAKO HEZKUNTZA
<p>EAEko 10 urte eta gehiagoko biztanleriaren ikasketa mailak gora egin du 1986/96 bitartean, ikasketa unibertsitarioek 4 bat puntuz (%15,4raino) eta 2. mailako ikasketek 7 bat (%30,4raino)<sup>33</sup>.</p> <p>EAEko gehiengoak (%77) hezkuntza 'oso ona+ona' dela eta %14k 'oso txarra+txarra' diote<sup>34</sup>.</p> <p>EAEko hezkuntzaren gabeziak adierazi ditu Eskola Kontseiluak<sup>35</sup>:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ghattizazioa, baldintza eskas edo bereziko haurrak ikastetxe batzuetan bilduz gero.</li> <li>• Hizkuntz eredu batzuek ez dute bermatzen bi hizkuntz ofizialak menperatzea.</li> <li>• Hizkuntz ereduak kontuan hartuta ikastetxeentzako baldintzak zurruneziak dira.</li> <li>• Irakasle guztiak ez dira euskaldundu.</li> </ul>
<p>Selektibitatean Hego Euskal Herrian lortzen diren emaitzak estatuko hoberenen artean daude eta Lanbide Heziketa ere eredu bihurtu da beste komunitate autonomoentzat.</p>

Hezkuntza sistema arautuari erreparatuz gero, EAEen lortutako emaitzak, oro har, ontzat jotzen dira eta hezkuntza sistemaren eraginkortasuna frogatua dago. Eta hori ez da nolana hiko lorpena.

Bestalde, ikasketa mota gehienak inoiz baino eskuragarriagoak dira; ia denen esku daude. Zentzu horretan hezkuntza sistemak gizarte-desberdintasunak gainditzeko ez baditu, leuntzen laguntzen duela dirudi.

Baina, eta planteamendu moralista merkeetan erortzeko arriskuaz jabetuta, hezkuntza sistemari leporatu ohi zaiona hauxe da:

- Ikasleei erabateko heziketa eskaini partez lan-merkatuaren premiak asetzeari zuzendutako trebakuntza hutsa ematea. Edo, bestela esanda, herri baten elkar-bizitza edo bizikidetzari begira behar bezalako balioak (tolerantzia, balio demokratikoak...) ez ondorengotaratzea.

- Bestalde, bertako kultura-molde nagusiak birsortzearen aldetik, hezkuntza sistema euskal eta erdal kulturaren arteko zubi-lana egiten duenentz, duda-mudakoa da: hizkuntz eredueta familia-jatorriaren eta bizilekuaren kutsu kulturalen araberrako banaketa ez ote den birsortzen.

## 2.7. Politika Instituzionalizatua

Azterketa honetako ikuspuntu politikoaren ardatzak bi izan behar dira gure ustez: Euskal Herria eta demokrazia, eta bi zutabe horien gainean antolatuko dugu gure gogoeta.

POLITIKA (I): Instituzionalizatua eta lurraldetasuna
<p>Euskal Herriaren zatiketa bi estatueta eta hiru erakuntza politiko-administratiboetan:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Gizarte horien arteko ezberdintasunak areagotu eta amankomuneko kultura, Euskal Herri osoko nortasun eta kontzientzia komuna eragotziz.</li> <li>• Espainia/Frantziako eta Euskal Herriko abertzaleen arteko gatazka politikoaren iturburu<sup>36</sup>.</li> <li>• Udalbiltza, hiru euskal lurraldeetako erakunde politiko komunaren saioa 'airean' dago.</li> </ul>
<p>EAEren eta Nafarroaren erakuntza estatutarioari ekin zaio azken bi hamarkadetan:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskal lurraldeen nortasun bereziak eta bereziak instituzionalizatu.</li> <li>• Autogobernua garatu eta eskumenak berreskuratu.</li> <li>• Euskal kultura eta euskararen gainbehera geldiarazi du.</li> <li>• Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa elkarri hurbildu ditu, inoiz izan ez den lotura lortzeraino.</li> <li>• Sektore publiko indartsu baten sorrera ahalbidetu du.</li> </ul>
<p>Bide autonomikoak baditu arazoak eta arriskuak<sup>37</sup>:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Legitimitate ahula (abertzale nahiz ez-abertzaleengan) eta helburu garbirik eza (abertzaleengan)<sup>38</sup>.</li> <li>• Subiranotasunezko asmo abertzalea oztopatu.</li> <li>• Autonomia asetzeko eta sendotzeko zailtasunak.</li> <li>• Euskal Herriko lurraldeen arteko zatiketa gainditzeko ezina eta sakontzeko arriskua: EH osoa EAErekin ordezkatzu, edo Nafarroa EAErekin kontrajarriz.</li> <li>• Demokrazia, onartu ez den konstituzioarekin nahastu, horren ondorioz instituzioak ahuldu<sup>39</sup>.</li> </ul>
<p>Iparralde hasi da emeki-emeki mugitzen:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Aquitaine eskualdean 'galduta', inolako erakundetze politiko propiorik gabe.</li> <li>• 1992an Euskal Herria 2010 Lurralde Eskema sortu zenetik, 'Garapen Kontseilutik eta Hautatsien Kontseiluaren elkarlanaren bitartez Ipar Euskal Herriko Antolaketa eta Garapen Eskema' garatzen hasi dira<sup>40</sup>.</li> </ul>

36. Juaristi (2001: 72-73).

37. Gurrutxaga (2001: 66)

38. Unzeta (2001:11-13).

39. Unzeta (2001: 7-8).

40. Asurmendi (2001).

33. Eustat: <http://www.eustat.es/euskara/graf/indicador/ind1239g.jpg>

34. Prospekzio Soziologikoen Kabinetea (2001: 6)

35. Ellakuria (2001)



- Maila administratiboko zazpi atal: formakuntza, ingurunea, ekonomia, azpiegitura, hirigintza, kultura eta hizkuntza.
- Bestalde, departamentu propioaren aldarrikapena hedatzen eta indartzen ari da.
- Planteamendu abertzaleak inoiz baino oihartzun handiagoa lortu dute 2001ean: Garat hautatua Pabeko Parlamenturako; ELB nekazal sindikatuak lehenbiziko aldiz gehiengoa lortu; Senaturako hautagai bozkatue- na Iparraldean Euskal Departamentuaren aldekoa...

Europako Batasunaren egitasmoaren mugak begi bista-koak dira<sup>41</sup>:

- Estatuaren berekoikeria nazionalak ez dira desagertu.
- Erregioen auzia bigarren mailako gaia da Europan: Erregioen Batzordea aholkulari hutsa da eta interese-ko gaitan ordezkariak zuzenik ez dute herrialde gehienek<sup>42</sup>.
- Ekonomia eta funtzionamendu administratiboak hobesten dira, elkartasun eta anaitasun bezalako balioak bigarren mailan utzita.

**AURRERA BEGIRAKO JOERA POLITIKOAK**

Euskal Herria eraikitzeko hainbat ekimen eta dilema sortzen da:

- Egitasmo subiranozaleak oztopoak aurkitzen ditu: euskal gizartearen zatiketa politikoa eta aniztasuna; nazionalismoaren baitako independentziaren aurka-riak; nazionalismoaren ahulezia Araba, Nafarroa eta Iparraldean; EBko baldintza politikoak; aldarrikapen subiranozaleek jendearengan sortarazten duten bel- durra<sup>43</sup>.
- Espainiako 'Autonomien Estatuan' atzerapausoak ari dira ematen<sup>44</sup>.
- Bide estatutariotik jarraitzeko arrazoiak badira: Esta- tuarekin harremanak bideratzeko instituzioa da, elkar- bizitzarako eta politikarako bilgunea, eskumen gehiago lortzeko bidea, alternatiba amankomunik eza, euskal nazionalista eta gainontzekoen arteko bestelako zubirik eza, jendeak aldaketari dion beldu- rra<sup>45</sup>.

EBn hainbat aldaketa gertatzeaz dago: 15 estatu izate- tik 27 izatera; Nizako tratatua...

- Europako herri eta nazio batzuk estatu eta identitatea bereiztua izatea ari dira eskatzen.
- Euroeskualdeak hiru euskal lurraldeen arteko lankide- tza administratibo eta kulturala epelki bideratu du (Aquitaine-Nafarroa-Euskadi lankidetza: ikerketa eta ekimen kulturaletako dirulaguntzak, estatistikak...; Baiona-Donostia Euskal Eurohiria...)<sup>46</sup>.
- Espainiak/Frantziak/Europako Batasunak berez ez diote subiranotasunaren atea irekiko EHri.

Laburbilduz, baste zatiketa ideologikoen gaine- tik, herri eta nazio ideien inguruan –hau da, aman- komuneko eta identitate nazionalaren inguruan– eraikitzen dira gure gizarteko planteamendu politiko indartsuen eta eraginkorrenak.

Herri bezala, Euskal Herria bidegurutzan dago aspaldian, bi joera kontrajarriren artean:

a) Errealitate instituzionalari uko egin, eta Eus- kal Herriko lurralde zatituak egitasmo komun eta subirano batetik abiatu (euskal nazionalismoa edo abertzaletasuna).

b) Hegoaldea Espainian eta Iparralde Fran- tzian gero eta gehiago integratu, Iparralde eta Hegoaldearen arteko ezberdintasun eta aldea area- gotuz (estatuko nazionalismo espainiarraren eta frantziarraren eskutik).

Egoera honek gatazka politiko bat sortzen du planteamendu bi horien artean.

Bestalde, abertzaleengan agertzen diren estrategia eta jokabide politiko ezberdinak bi dira: bide autonomikoaren aldekoak eta horri uko egi- nez estatuekiko haustura politikoa aldarrikatzen dutenak.

Eta hausturaren aldekoen artean ere, beste zatiketa bat agertzen da borroka armatuaren ingu- ruan: Euskal Herriko egoeran jokabide hori zilegi- tzat jotzen duten eta hura galtzesten dutenen artekoa.

**POLITIKA (II): Ildo-ideologikoak Euskal Herriko balizko legebiltzarren osaketan<sup>47</sup>**  
(100 eserleku 5 lurraldeetako biztanleriaren proportzioaren arabera banatuta)

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Nafarroa	Iparralde	Euskal Herria
Abertzale moderatuak EAJ-PNV + EA, EHA	4	18	11	1	0	34
Ezker abertzalea EH, AB	0	3	3	3	1	10
Eskuineko estatalistak PP (+UA), UPN, RPR/UDF, FN	4	10	4	8	4	30
Ezkerreko estatalistak PSE-EE, PSN, PS	2	7	4	4	2	19
Beste batzuk IU-EB, PCF, CDN, IANT	0	2	1	2	2	7
<b>Eserlekuak guztira</b>	<b>10</b>	<b>40</b>	<b>23</b>	<b>18</b>	<b>9</b>	<b>100</b>

41. Pradier (2001).

42. Juaristi (2001: 73).

43. Gurrutxaga (2001: 70-71).

44. Gurrutxaga (2001: 69).

45. (Gurrutxaga 2001: 69).

46. Arzelus (2001).

47. 2001-05/13ko Legebiltzarreko Hauteskundeak, EAEn; Nafarroako Parlamentuko 1999ko Hauteskundeak eta, Iparraldean, 1998ko Aquitaniako Erregio Hauteskundeak.

Euskal Herriko ildo ideologiko nagusiak abertzale moderatuak (34 eserleku) eta eskuineko estatistak (30) dira 'balizko legebiltzar nazionalen', ezkerreko estatistak hirugarren lekuan (19) kokatuko lirateke eta ezker abertzalea laugarrenean (10).

Baina ideologikoki ere berezitasunak agertzen dira lurraldeen artean:

- Soilik Bizkaian eta Gipuzkoan nagusitzen dira abertzale moderatuak, eta Araban eskuineko estatistekin berdinduta gelditzen dira.

- Nafarroan eta Iparraldean eskuineko estatistak dira lehenengo korrante ideologikoa.

Eserlekuen banaketa lurralde bakoitzeko pisu demografikoaren arabera egin denez, azpimarragarria da Bizkiak hartzen duen garrantzia.

Ondoriorik ateratzekotan, ondoko hauek aipa daitezke:

- Abertzaletasunaren indarra Euskal Herria osorik hartuta, eta, bereziki, Bizkaian eta Gipuzkoan.

- Estatalismoaren indarra Nafarroan eta Iparraldean, bereziki.

Lurraldeen arteko ezberdintasunak ildo ideologikoei dagokienez handiak dira eta aniztasun horrek zaildu agiten du egitasmo komun baten atzetik aurrera gitea.

## 2.8. Kultura politikoa

KULTURA POLITIKOA
Politika konbentzionalarekiko jendeak adierazten duen urruntasuna versus Komunikabideetan duen agerpen handia <sup>48</sup> : <ul style="list-style-type: none"> <li>• EAEn %34 biztanle daude 'oso' edo 'zertxobait interesatuta'<sup>49</sup>.</li> <li>• Gazteen arteko urruntasun hori areagotzen da, beste ideia eta aldarrikapen politikoen mesedetan (feminismoa, ekologismoa, bakezaletasuna, antimilitarismoa,...)<sup>50</sup>.</li> </ul>
Klase ideologiaren gainbehera eta ezker/eskuin ardatzak gero eta zentsu gutxiago du: <ul style="list-style-type: none"> <li>• EAEko jendearen %31k ez dakite bere burua ardatz horretan kokatzen<sup>51</sup>.</li> </ul>
Herri senak ez du indarririk galdu <sup>52</sup> : <ul style="list-style-type: none"> <li>• EAEko %48k 'gehienbat Euskal Herrikotzat' jotzen du bere burua, %38k 'Euskal Herriko zein Espainiakoak sentitzen dira' eta %10k 'gehienbat espainolak' (%5k soilik ez dakite).</li> </ul>

48. Juaristi (2001: 101-102).

49. Prospekzio Soziologikoen Kabinetea (2000: 23-24).

50. Unzeta (2001: 14) eta Juaristi (2001: 107).

51. Prospekzio Soziologikoen Kabinetea (2000: 27-28).

52. Prospekzio Soziologikoen Kabinetea (2000: 30-31).

Lurraldetasuna auzian: EAEko %39rentzat 'País Vasco' EAE da eta %41entzat EAE+Nafarroa+Iparraldea<sup>53</sup>.

EAEko ideologia abertzale eta iraultzaileen ginetik asebetearen kultura<sup>54</sup> nagusitu da<sup>55</sup>:

- Gehiengoak gustura dago egoerarekin: 'oso ona+ona' da egoera osasun zerbitzuetan (%90), kulturean (%83), hezkuntzan (%77), euskaran (%66), ingurugiroan (%66), gizon eta emakumeen arteko berdintasunean (%59), laguntza sozialetan (%52), jendearen segurtasunean (%53) eta enpleguan (%53).
- Gehiengoa gustura dago bertako administrazio publikoen funtzionamenduari: udalarekin (%69), foru aldundiarekin (%64), Eusko Jaurilaritzarekin (%63), baino ez Espainiako gobernuarekin (%24).
- Arazo nagusiak dira: bortizkeri politikoa+bakea ezartzea (%70); langabezia (%66); ezberdinkeria eta ongizatea (%25); etxebizitza/osasun-zerbitzuak/hezkuntza (%18)<sup>56</sup>.

Kultura demokratikoaren gabeziak:

- Azalezko demokraziak sakoneko jarrera autoritarioak estaltzen dituzte<sup>57</sup>.
- Oinarrizko giza eta herri eskubideen mespretxua esparru politiko ezberdin askotan.
- 'Ezberdina' dena onartzeko zailtasunak (nazio homogeneoak bultzatzeko asmoak)<sup>58</sup>.

### KULTURA POLITIKOAREN JOERAK

EAEko biztanleriaren %55 pesimista azaldu da bortizkeriarekiko<sup>59</sup>.

Herri nortasuna, euskal nazionalismoaren eskutik doa nagusiki<sup>60</sup>.

Herri nortasuna definitzeko arazoak, nagusitzen den diskurtso baten faltan<sup>61</sup>:

- Autonomia Estatutua versus Autodeterminazioa
- EAE, NFE eta Iparraldea versus Zazpiak (edo Seiak?) Bat.
- Egitasmo nazionalistari begira komunitate nazionalista antolatatu, indarrak metatuz, ala euskal gizarte anizta bermatu<sup>62</sup>?

EAEko datuetan oinarrituta eta sarri askotan uste denaren kontra, euskal gizartearen gehiengoak ez du politikagintza sutuki bizitzen.

53. Prospekzio Soziologikoen Kabinetea (2000: 32-33).

54. Galbraith-ek garatutako kontzeptua da (Galbraith 1992).

55. Prospekzio Soziologikoen Kabinetea (2001: 6, 2001B: 33 eta 47).

56. UPV-EHU (2001).

57. Azurmendi (1998: 10); López Adan (2001).

58. Gurrutxaga in Unzeta (2001: 10).

59. Prospekzio Soziologikoen Kabinetea (2001: 6).

60. '...los nacionalismos democráticos (...) continúan siendo un factor de modernización, de progreso y de cohesión social que movilizan energías positivas y constructivas de las personas.' (Pujol 2001: 21).

61. Unzeta (2001:13)

62. Gurrutxaga (2001: 70).

Ezker tradizionalaren diskurtsoa lurrindu da, praktikan eskumaren diskurtsoa nagusituta. Zentzu horretan garai bateko zatiketa baretu da eta horren adibidea dugu PNV-EA eta EB-IUren arteko gobernuua.

Herri-senak, aldiz, ez du esanahirik galdu, baina era berean oso erdibituta dago: euskal abertzaletasuna nagusia izan arren, ez da jaun eta jabe. Lurraldetasunari erreparatuz, adibidez, Euskal Herriaren ideia ere ahula da: 'País Vasco' zer den -zeintzuk lurralde sartzen diren- esatean Euskal Herri osoa edo EAE soilik aipatzen dutenak oso parekaturik daude, EAEko biztanleriaren artean (eta beste lurraldeetan ziur aski ez dira gehiago izango).

Ideologia bakarra nagusitu partez, aniztasun eta konplexutasun ideologiko ugari dago. Eta aniztasun horren barruan euskal gizartearen baitako pitzadura nagusiak bi dira: euskal eta espainiar/frantziar nazionalismo kontrajarrien artekoak, batetik, eta ETaren aldeko eta kontrakoaren artekoak, bestetik.

Baina ezin da ahaztu, salbuespenak salbuespen, herria eroso bizi dela eta nagusitzen zaion kezka hauxe dela: gustukoa duen egoera hori inondik inola ez zapuztea. Ondorioz, *asebetearen kultura* da politikan eragiten duen planteamendu garrantzitsua, *statu quo*-ren alde joz; adibidez, planteamendu subiranozaleek jende artean aurkitzen dituzten oztopoez horrela dio Gurrutxagak:

"Hay otros riesgos como la incertidumbre y el desasosiego que provoca en muchos ciudadanos estos procesos y las tomas de posiciones que desencadenan, las presiones que desarrollan, etc." (Gurrutxaga 2001: 70-71).

EAEko (eta seguru asko, baita Nafarroako) kezka -ez bakarra, baina bai nagusia- bortizkeria da, arrazoi etiko eta demokratikoengatik nahiz asebetearen pragmatismo politiko hutsagatik: egoera eroso konprometitu eta galtzeko arriskuan jartzen duelako<sup>63</sup>. Joera hori argi eta garbi azaldu da 2001eko EAEko hauteskunde autonomikoen emaitzetan: mutur ideologikoko frentismoaren gainetik eta konfrontazio-aukerak baztertuz, erdiguneko nazionalismo pragmatikoaren hautua nagusitu da.

Arestian aipatzen genituen euskal gizartearen arazo bi: gatazka politikoa eta bortizkeria; alabaina, arazook ez dira nahastu behar. Arazo politiko bati irtenbide ezberdinak eskain dakizkioke, bortitzak ala baketsuak; enfrontamendu-bidea ala elkarrizketa eta akordioarena.

Espainia/Frantziako estatu bien eta Euskal Herriaren arteko liskar politiko-ideologikoak gure inguruneko kultura politikoaren ahulezi demokratikoarekin bat egiten duenean, orduan sortzen da bortizkeria. Ikus dezagun ahulezi demokratikoaren arriskuaz Azurmendik dioena:

"Demokrazia izan liteke herri batek bere historian, poliki-poliki, lan eta borroka artean, irabazia eta landua eta beti landuz jarraitzen duena. Kultura bat. Edo izan liteke dekretu batez goitik behera ezarria (...) ...demokrazia eror daiteke puntu batera, non berari eusten dion kultura -axaleko formak utzita- funtsean faxismoari eusten zion kultura berbera den". (Azurmendi 1998: 10).

Izan ere, aldarte eta jarrera intransigenteak oso errotuta daude gure kulturen, ez politikan soilik, ezta kolore politiko bakar baten baitan. Intransigentzia hori kulturala da, beraz, politikatik haragokoa, baina jarrera politiko askotan ere adierazten da:

"El paradigma (del nacionalismo mayoritario) es el de la integración-asimilación, no el del pluralismo y el mestizaje". (Gurrutxaga, Unzeta 2001-an: 10).

Gisa horretako adibideak ugariak izan daitezke; besteak beste, Trebiño Enklabeko udalek euren etorkizuna Burgos ala Araba barruan bideratzeko aukeren artean hautatzeko erreferendum baterako eskaerari, Madrilgo gobernuak muzin egitea ahulezi demokratikoaren adierazgarri garbia dugu. Zer esanik ez, Euskal Herriaren autodeterminazio eskubidea aldarrikatzean, estatuko indar gehienek eskaera hori indarkeriarekin nahita nahasten dutenean, desenkusa horrekin herriaren eskubide demokratikoa ostuz<sup>64</sup>.

Edo, López Adanek dioenez:

"Orain ezker abertzaleak barneratua dauka ETak bakarrik erabaki behar duela zer egingo duen, eta prest dago erakunde legalen jardunak ETaren bideari egokitzeko, ondorioak edozein izanik ere. Sakrifizioarako prest direnen mentalitate horrekin, militarismoa, sekretismoa, eta sozietate zibilaren kontrolatik at egotea... bertuteak bilakatu dira. Demokraziatik urrun gaude. Badirudi demokrazia dela etsaiari exijitzen diogun zerbait, gure baitan baliorik ez duena". (López Adan 2001).

Kultura (politiko) intransigentea errotuta dago, beraz, eta mendeteko gatazka politikoa aldarte eta jarrera intransigenteekin bat egitean sortzen da egungo biolentzia politikoa; gatazka politiko hutsak ez du zertan eta derrigorrez biolentzia itxurapean gauzatu behar. Gatazka politikoari batzuek eskaintzen dioten irtenbidea da bortizkeria, baina ez bakarra.

## 2.9. Kultura orokorra

Objetiboki begiratuta Euskal Herriko gizartearen kultur-mestizajearen ondorioa da zentzu askotan. Labur esanda kultura-ildo asko nahastu dira eten gabe mendeetan zehar bertako kultura tradizionalarekin: kultura klasiko grekoa eta latina, batetik; Europako korrante nagusiaren eragina, bestetik; eta, azkenik, egungo kultura globala ere.

63. Martínez de Luna (2000).

64. Ikus *El referéndum como indicador de democracia* (Muez Ororbia 2001).

Horrezaz gain, Euskal Herria Frantzia eta Espainia artean banatuta izateak estatu horietako kultura ezberdinak hedatu ditu Iparraldean eta Hegoaldean, euskal lurralde horien arteko heterogeneotasuna areagotuz.

Beraz, egungo euskal kulturaren egoera eta joerak arakatzean, zaila gertatzen zalgu aztergaia zedarritzea. Euskeraz den kultura soilik kontuan hartzea irtenbide erraza litzateke, baina arriskutsua era berean, zeren muga horrekin euskara ez dūten biztanleria eta gizartearen proportzio handiei bertako izana ukatuko genieke.

Gauzak horrela, euskarazko kulturari tarte propioa eskaini ez ezik, bereiztuta emango dugu gure hizkuntzari lotuta ez dauden beste adierazle kultural batzuen berri ere.

<b>KULTURA (I): BALORE NAGUSIAK</b>
<p>Euskal Herriaren oinarritzko goiburua edo baloreak<sup>65</sup>:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• ez dira bere inguruneke herriengandik asko ezberdintzen.</li> <li>• balore-hierarkia propioa badute: familia, lagunak, lana, aisialdia, erlijioa eta politika (handitik txikira, garrantziaren araberrako segidan).</li> </ul>
<p>Aisialdiak aldatetak izan ditu<sup>66</sup>:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Garrantzi handiagoa hartu du gure bizitzan.</li> <li>• Jarduera ekonomiko garrantzitsua bihurtu da, kontsumo gisa.</li> <li>• Balio eta pentsamolde atzeritarrak gureganarazten eta barnarazten dizkigu.</li> </ul>
<p>Erlijiotasunaren mamia aldatuz doa<sup>67</sup>:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Hego Euskal Herriko gehiengoa katolikotzat jotzen du bere burua.</li> <li>• Erlijiotasun esperientziala/espiritualaren hazkundera versus erlijiotasun instituzionalizatua<sup>68</sup>.</li> </ul>
<p>Sexuen berdintasunaren aldeko balioen gorakada. Injustizia sozialaren kontzientzia (EAE)<sup>69</sup>:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• %49k uste du 'gure artean pobreak izatearen arrazoia gizartea injustua izatean' datzala.</li> <li>• %52k dio 'pobreziaren aurka gizarte eraldaketa sakona behar dela'.</li> </ul>
<p><b>KULTURA (I): Balore nagusien aurrera begirako joerak</b></p> <p>Gizartearen (iturazko) homogeneousotasun eta munduaren sailkapen bakuna betiko galtzen ari dira<sup>70</sup>:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Aniztasun kulturala gero eta ugariagoa: bizimolde anitz eta komunitate ezberdinen gainjartzea egungo gizartearen ezinbesteko ezaugarria dugu.</li> <li>• Batasun eta nortasun oro ezberdintasunak bultzatuta eta horren gainean eraikiko da.</li> </ul>

<p>Balore kontrajarriak XXI. mendearen atarian<sup>71</sup>:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Balore postmaterialistak gorantz doaz.</li> <li>• Balore materialistak eta indibidualistak ere indartsu daude: 'edukitzearen' garrantzia eta kontsumismoa (hedonismoak ere kontsumorantz bultzatzen gaitu).</li> <li>• Indibidualtasuna eta bakartasuna: masifikatuta bai, baina gero eta bakartiagoak gara.</li> <li>• Harremanak teknifikatuz doaz (komunikabideen garrantzia areagotuz).</li> </ul>
--

Balio orokorrak eta portaerak kontzeptualki erraz bereiz daitezke, baina ez da berdin gertatzen azterketa maila empirikora eramaten denean.

<b>KULTURA (II): PORTAERAK ETA IRITZIAK</b>
<p>Hurbileko komunitateen erreferentziak aldatuko dira<sup>72</sup>:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Familia, lagun eta halakoak beharrezkoagoak izango dira, globalizazioaren aurrean.</li> <li>• Familiek aldatuko dute: txikiagoak, askotan pertsona bakarrekoak; sexu bereko bikoteak; atzerriko ume adoptatuak dituztenenak.</li> </ul>
<p>Lanaren garrantzia mantenduko da, baina arrazoi desberdinengatik<sup>73</sup>:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Lanarekiko miresmen tradizionala alde batea utzita, aisialdiaren garrantzia areagotzen ari da.</li> <li>• Baina, bestalde, langabeziak lanaren garrantzia areagotzen du.</li> <li>• Gainera, lana kontsumoaren giltzarria da, erosteko ematen duen ahalmena dela medio.</li> <li>• Baldintza ekonomiko lehiakorragoek lan eta ahalegin handiagoak eskatzen dituzte<sup>74</sup>.</li> </ul>
<p>Beharizan berriak<sup>75</sup>:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Norberaren munduarekin harremanetan dauden gaiez areagotzen ari dira ardurak: gizarte pragmatikoa nagusitzen ari da.</li> <li>• 'Gizarte ereduen' garrantzia: zerbait edo-eta norbait miretsi eta imitatu beharra.</li> <li>• Gaztetasuna goraiatu eta zahartzarora saihestu beharra.</li> <li>• Norberaren irudiaren garrantzia: EAEko %67 oso edo apur bat arduratuta dago bere itxurarekin eta %61k bere pisua zaintzen du; %53k zerbait egiten du pisua mantentzeko edo argaltzeko.</li> <li>• Aldaketetarako zaletasuna areagotu: moda, nobedadei jarraitu beharra.</li> <li>• Bizimodu artifizialean murgildurik, naturara bueltatzeko premia areagotzen da.</li> <li>• Zientziarekiko lilura eta mirespena.</li> <li>• Errealitatetik ihes egiteko beharra: barrurako joera, bidaia, drogen kontsumoa...</li> </ul>
<p>EAEEn eta Nafarroako prentsaren hedatze-tasa oso handia da (163 eta 161 egunkari/mila biztanleko, hurrenez hurren) Espainiako tasarekiko (101 egunkari/mila biztanleko)<sup>76</sup>.</p>

65. Juaristi (2001: 89-90).

66. Juaristi (2001: 92-93).

67. Juaristi (2001: 94-101).

68. Adibidez, 2000. urtean zerga-aitorpenaren %0,5 eliza katolikoak eta gizarte-xedeek berdin partekatu dute Araban.

69. Prospekzio Soziologikoen Kabinetea (2000: 16-17).

70. Innerarity (2001: 54-56).

71. Juaristi (2001: 106-108).

72. Juaristi (2001: 90).

73. Juaristi (2001: 90).

74. Arrazoi hau ez du Juaristik aipatzen.

75. Juaristi (2001: 102-106).

76. Arriaga eta Pérez Soengas (2000: 32).

Euskal Herri osoaren ikuspuntua kontuan hartzen duten komunikabide bakarrak euskal nazionalismotik bultzatutakoak dira, gainontzekoek errealitate hori nahita alboratuz.

Guggenheim Bilbao museoa: kultur-ekipamendutik turismo, kontsumo eta irudi-sinbolikorainoko jauzi aparta.

Gizartea krisian dagoela esan ohi da, eta balioen aldaketa gertatzen ari dela. Baina ez gurean soilik, gutxienez mendebalde osoan, mundu maila ez esatearren.

Baina, gure kasuan eta herri gutxitua garen heinean, aldaketatik azpimarragarriena kulturaeredu homogeen eta (askotan) bakarrek gizartetik egungo gizarte askotariko edo pluraleraino emandako pausoa da. Izan ere, gaur egun edozein gizartearen baitan azpitalde eta azpi-kultura ugari egon ohi da:

“Las sociedades han perdido esa inocente homogeneidad con que se habían revestido en otras épocas, a veces ignorando injustamente las diferencias que contenían. (...) La fragmentación del mundo convierte en una quimera la representación de la identidad como una totalidad armónica y sin disonancias, con una territorialidad compacta y unas tradiciones aseguradas. (...) La yuxtaposición de distintos modos de vida y de comunidades que no pueden ser tratadas de manera uniforme es una característica irrenunciable de la cultura contemporánea. (...) Al desvanecerse el espejismo de una clasificación simple del mundo (...) nos encontramos de nuevo en una era de diferencias entrelazadas. Todo lo que pueda surgir en términos de unidad e identidad lo hará a partir de la diferencia y producido por ella.” (Innerarity 2001: 54-56).

Eta nortasun propioari heldu nahi dion estatutik gabeko herriak (baliabide eta baldintza kulturaletan horrek dakarren gabezia guztiekin), bidegurutzean aurkitzen du bere burua: tradizioaren eskutik iritsi zaion kultura eta herri-nortasuna ahal duen neurrian gorde nahi ditu. Baina, aldaketen aurrean jarrera irekia mantenduz gero eta oraingo kultura-aniztasuna barneratzean, zenbateraino ahulduko eta desagertuko da aldarrikatu eta gorde nahi duen nortasun jator hura?

## 2.10. Euskera

### EUSKARAREN EGOERA ETA JOERAK<sup>77</sup>

Euskararen ezagutza-mailak eta nondik norakoak oso ezberdinak dira euskal lurraldeetan<sup>78</sup>:

- 16 urte eta gehiagoko biztanleriaren artean %22,5 euskalduna ziren 1996an: Iparraldean %27, EAEn %26 eta Nafarroan %9.

77. Juaristi (2001: 78-83).

78. Iturriak: Kontxesi Berrio-Otxoa (Hainbat egile 2000: 113) eta Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua eta Euskal Herri Kultur Erakundea (1997: 19).

- 1999an, 13-14 urteko gaztetxoaren artean ezagutza hazi da Euskal Herri osoan (%48raino) Hegoaldean (EAEn %62 eta Nafarroan %20), baina Iparraldean jaitsi da (%9).

Normalkuntzarako plangintza sendoa ezartzen ari den lurraldean erabilera areagotu da<sup>79</sup>:

- EAEko 13-14 urteko gaztetxoaren artean 6 urteko epean (1996/99) erabilerak gora egin du neba-arrebekin (%25etik %28ra), koadrilako lagunekin (%15etik %23ra), ikaskideekin gela barruan (%20tik %28ra) eta ikaskideekin gelaz kanpo (%13tik %21era).

Euskal hiztunen komunitatearen ahulezia eta marjinaltasuna, Euskal Herrian bertan<sup>80</sup>:

- Familia, lagun, ikaskide eta auzoko neska-mutielekin (horietako guztiekin) harremanak gehienbat euskaraz burutzen dituenak 13-14 urteko neska-mutil euskaldunen %15 baino ez da.
- Gaztetxo euskaldunen %31k ez du nagusiki euskaraz egiten eguneroko bizi-guneetako bakar batetan (eskola salbu).

### EUSKARAZKO ERAKUNDE ETA KONTSUMOEN JOERAK<sup>81</sup>

Atzerako bidea hartu nahi du Nafarroako Gobernuak euskararen gaineko eskubide, baliabide eta ekimenean. Gainontzeko euskal lurraldeetan pixkana-pixkana baldintzak gero eta hobeak dira:

- Oztopoak oztopo, hezkuntza sistemako D eredu indartzen doa.
- Euskarazko kultura-erakundeak azpiegiturak hobera egin du, baina oraindik oso ahula da hedapen handiko ekimen erdaldunen parean (zinea, TB...).
- Inoiz baino diru gehiago euskal kulturarako, baina erlatiboki oraindik gutxi da.
- Euskarazko kulturarako diru-laguntza gehienak EAetik datoz, Nafarroatik askoz gutxiago eta Iparraldetik oso gutxi.
- Euskarazko kontsumoaren joera inoiz baino handiagoa da, baina erdal kontsumoarekiko gutxiengoan dago eta ‘gezur sozialaren’ susmopean.
- Euskalgintzaren aurrerapausoak: Jarduera sendoa eta ekimen ugari dago; Euskararen Kontseilua sortu berria da Iparraldean (2001-07-03)<sup>82</sup>.

Hegoalde/Iparralde harreman kulturalak areagotu dira Euskal Herri bakarraren ikerpean<sup>83</sup>.

Hona hemen hizkuntz egoerari buruzko diagnosi laburra:

79. Berrio-Otxoa (Hainbat egile 2000: 170, 172).

80. Martínez de Luna (Hainbat egile 2000: 266-267).

81. Juaristi (2001: 78-83).

82. “Kultur Erakundearen Lehendakariak dio aro berri bat hasi dela Ipar Euskal Herrian. Alegia, euskaltzale eta ahaldunen arteko elkarrizketak paktu edo itun bat ekarri duela, eta hemendik aurrera euskalgintza hitzartua izango dela”. (López Adan, Euskaldunon Egunkaria 2001-06-30).

83. Adibide bat aipatzearen Eire dugu; hau da Euskal Herriko unibertsitate guztietako euskal irakasleak biltzen dituen erakunde berria.

“Euskal Herriko lurralde bakoitzean joera propioa eta bereiztua antzematen da: Iparraldean, euskararen gain-behera; EAEn, berreskurapen saioak; Nafarroan, euskararen berreskurapen asmo galgatua. Beti ere, ahaztu gabe hiru lurralde horietako bakoitzean eskualde batetik bestera egoera oso ezberdinak aurki daitezkeela.” (Hainbat egile 2000: 279).

Oro har, esan daiteke euskararen normalkuntzarako politikak aurrera eraman diren lurraldeetan, aurrerapausoak antzematen direla, nahiz eta neurriak hobetzeko eta ahaleginak areagotzeko tartea beti egongo den.

Nafarroako Gobernuaren eskutik euskarak lurralde horretan jasan duen eraso ez da bakarra, alabaina; 1997tik aurrera PP alderdi politikoak hasiera eman dio euskararen normalkuntzaren aurkako kanpaina bati, ordura arte nagusi zen kontsentsu politikoari amaiera emanaz (Torrealdai 2001).

### 3. ETORKIZUNeko ERRONKAK

Manuel Castells-ek dagoeneko egungo gizartean indarrez gailentzen diren hainbat egiturazko ezaugarri berri azpimarratzen du; hona hemen horiek guztiak llabor aipatuta (Castells 2001):

- *Paradigma teknologiko berriak*: ezaupidetik edo ikuspuntu kultural batetik begiratuta, informazioaren teknologiek (ingeniarika genetikoak, mikroelektronika...) hartu duten pisu handia, bereziki.

- *Globalizazioa*: organizazio eta instituzioen aldaketa da, izan ere sistema bakarreko (ekonomia, kirola, komunikabideak, gizarte mugimenduak...) osagarriek une berean eta batera funtzionatzen dute mundu mailan, harreman-sareetan antolatuta; zeren erakunde txikiez osatutako sareak malgutasun eta garrantzi handiak lortzen baititu. Hemendik aurrera, sare horietatik kanpo gelditzea izango da bazterketarik handiena.

- *Hipertestu elektronikoa*: kultura osoa euskarri elektronikoen dago sartuta eta honek eskaintzen dituen erabilerarako aukerak hedatu eta ugaritu dira.

- *Estatu-nazioen funtzioak murriztuta*: estatuen esparrua ari da gairitzen hainbat funtzio egoki bete ahal izateko, erakunde supraestatalen nahiz erregioen mesedetan.

- *Patriarkalismoaren gainbehera*: nagusiki emakumezkoen kontzientzia-aldaketan islatzen da aldaketa, patriarkalimotik at bizitza sortzeko aukera berriek neurri batean lagunduta.

- *Kontzientzia ekologikoaren hedapena*: naturarekiko ardura areagotu da eta natura eta kulturaren arteko harremanak aldatzeko kontzientzia dago; aurreko eredu erasokorraren partez natura/kultura binomioa integratuko duen planteamendua aldarrikatzen da (garapen jasangarria...).

- *Gizarte Mugimendu Berrien garrantzia*: gizartea eraldatzeko eragile nagusiak bilakatu dira, aldaketa zehatzetan jardun partez jendearen pentsamoldeak aldatu nahirik.

- *Denbora eta espazioa ulertzeko era berria*: denboraren etorria izugarri azkartu da eta espazioa, lehen kokagune zehatzetan oinarritzen bazen, orain jarioetan edo fluxuetan datza.

Idea hauek eta, bestetik, aurretik egindako diagnosia oinarritzat hartuta, gaurtik aurrera bidean topa ditzakegun erronka nagusiak laburbilduko ditugu, zeregin horretan bururatzen zaizkigun hausnarketak eta zalantzak ere mahaigaineratuz.

Argi izan behar dugu, baina, errealitate *materia*la gure oinarri fisikoa bada eta existitzeko beharrezkoa bazaigu ere, ikuspuntu *izpiritualak* ezartzen duela gure bizitzaren iparra. Gauzak horrela, has gaitezen *izpirituzko* erronka nagusiak mugatzen, ondoren planteamendu horien argira *materiazko* elementuak ere aztertu ahal izateko; kontuan izanda, beti ere, arlo izpiritualak eta materialak askotan elkarri lotuta daudela eta batzuk aipatzean besteak ere harira datozela.

#### 3.1. Euskal Herria eraiki

Euskal Herriaren eralkuntza da gure gogoetako zutabe nagusia, eta ipar horri zuzenduko diogu lehenbiziko puntu hau.

##### 3.1.1. EUSKAL HERRIAREN ASMOA

*Euskal Herria, asmo ahula*: Euskal Herria asmo kultural eta politiko bezala ez da nahikoa sendo. Lurraldetasunaren ikuspuntutik, adibidez, Euskal Herri baten ideia ahula da biztanleriarengan, eta, bestetik, Euskal Herria osorik hartuta, asmo hori suspertzen duten alderdi politikoak ez dira nagusitzen.

Datozen urteetan, Euskal Herriaren ideia defendatzen duten kultura eta ideologia politikoek askoz hedatu beharko dute gizartean, gure herriarekiko asmo hori gauzatuko bada.

*Euskal Herri zuzena*: eraiki nahi dugun Euskal Herria lortzeko hainbat gabezia eta puntu ahul zuzendu behar da. Aipa ditzagun ale batzuk: giza eta herri eskubideak eskuratu; herriaren hitzaren gainean eraikitzen den demokrazia; adierazpen-askatasuna bermatu; gutarra ez dena errespetatu; ezberdintasun eta bazterketa gairitu; aberastasunaren banaketa orekatuagoa lortu; justizia denontzat berdina izatea... Izan ere, herri batu bat osatu ez ezik, nolako herria nahi dugun ere garrantzitsua da.

##### 3.1.2. ASMOA BETETZEKO LAN-ILDOAK

*Politikaren blokeoa*: Euskal Herri batuaren alde lan egiten duten ekinbide politikoak (instituzionalak

nahiz Udalbiltza bezalakoak) blokeo egoeran daude. Badira hamarkada batzuk egoerak ez duela aurrerantz egiten, eta luzaroan berdin jarraitzeko arriskua dago orain arteko oztopoak eta baldintzak zeharo aldatu ezean.

Lekuan lekuko bide autonomistak eta departamendu propioaren asmoa Euskal Herri bakarra sortzeko estrategiaren zerbitzuan egonez gero, lagungarriak izan daitezke indarrak biltzeko eta lurralde horiek dituzten herri-ezaugarriak gal ez ditzaten. Baina, dugun eskarmentua kontuan hartuta, zaila izango da epe motzean ekimen politiko horien bidez hiru lurraldeen arteko hurbilpena, eta -zaila baino gehiago, ezinezkoa- Euskal Herriko batasun politikoa lortzea.

Bide autonomistetatik kanpo Euskal Herria erai-ki ahal izateko, alabaina, gauzak ez dira itxaropentsuagoak, lan-ildo horretatik jarraitzeko behar hainbat indarrak askogatik ere metatzen edo biltzen ez direlako.

Gauzak horrela, egin beharreko galdera hau da: blokeo egoera horretan jarraituz gero, bedago Euskal Herria eraikitzerik? Zeintzuk dira, beraz, egoera hori gainditzeko aukerak?

Blokeo politikotik atera ahal izateko, euskal gizartearen gehiengoa bilduko lukeen proposamen berri bat luzatzean datza aukera bakarra. Baina horretara iristeko asko aldatu beharko dute indar politiko batzuen planteamenduek, edo aldarazi beharko ditugu.

*Herriginka:* politikan dagoen blokeoa ikusita, hiru lurraldeetako gizartearen esku dago aurrera egiten bultzatzea:

- Herrigintzak badu zereginik lurralde horiek hobeto ezagutzeko elkar, eta mugez gaitetiko euskalgintza nahiz kultura arloetako lankidetzaren areagotzeko. Zentzu horretan, batasun politikotik oso urrun gelditu arren, zenbait lotura ekonomiko, administratibo, kultural eta sozial landuz eta sendotuz, hiru lurraldeen arteko hurbilpena areago daiteke. Izan ere, egunerokotasunean oinarritutako lurraldeen arteko loturen garrantzia ez da inolaz ere gutxietsi behar<sup>84</sup>.

- Blokeo politikoa gainditzeko laguntzeko, irtenbide berriak bilatzen eta hauek sor daitezkeen baldintza egokiak prestatzen. Gatazka politikoa bideratzeko eta irtenbide demokratikoa bilatzeko gizartearen burutzen ari diren saio batzuk oso garrantzitsuak izan daitezke (Elkarriren Bake Konferentzia, besteak beste).

- Globalizazioaz ere baliu gaitetzkeela ahaztu gabe. Hau da, nazioarte mailan dauden estatutik

gabeko beste herriekiko harreman-sareak hedatu eta sendotu behar ditugu; baita gure planteamenduekin bat etor daitezkeen talde guztiekiko. Kontuan izan behar dugu mundu globalizatuan inolako saretan txertaturik ez dagoena izango dela hutsaren hurrengoa, hemendik aurrera; baita herriak ere.

Azkenik esan, baldintza politiko orokorrak inork espero ez duenean alda daitezkeela, gizartearen agertzen ari diren joera berrien eskutik; oraingo estatuek dituzten funtzio batzuk beste antolaketa mailletara igarotzean, adibidez. Bitartean, guk geuk Euskal Herriaren egitasmoaren alde lan jarrai eta sendoa eginez gero, aukera historiko egokia iristean prest aurkituko gaitu gure aldeko aldaketa eragiteko.

### 3.2. Kultura orokorra eta euskal kultura

Arlo kulturalean ondoko ikuspuntuak azpimarratu nahi ditugu: euskal kulturen aniztasuna, demokraziaren oinarri kulturala eta bertako eta kanpoko kulturen arteko harremanak.

*Aniztasun kulturala onartu eta barneratu:* gure gizartearen baitan hainbat kultura elkarren ondoan agertzen diren une honetan, dugun erronka bat, hau da: aniztasun hori zinez onetsi eta, aldi berean, aberastasun hori Euskal Herriko egitasmo komun baten baitan kokatu.

Euskal Herri batuaren egitasmoa aldarrikatzen dugunok, hasteko, geure buruari galdetu behar diogu zenbateraino onartzen ditugun euskal gizartearen baitako kultura ezberdinak: lurralde batzuen kultura bereziak nahiz etorkin-talde askorenak; gure artean biziz gero, denok, haiek eta guk, osatzen dugu euskal gizartea. Beraz, Euskal Herri bat eraikitzeko barruko pluraltasun kulturalak gure egin behar ditugu, aniztasuna onartu ezean ezinezkoa baita ezberdinak diren lurralde eta taldeen arteko batasuna lortu, eta intrantsigentzian eta gatazka kulturalean amiltzeko arriskua baltugu.

*Demokraziaren oinarri kulturala:* gainera, gure gizartearen dauden kultura-molde ezberdinak gogo onez onartzean datza kultura demokratikorako baldintza funtsezko bat; ezberdina dena, diferente pentsatzen duena errespetatuz hasten da demokrazia.

Horrela, eta arlo kulturaletik hasita, Euskal Herri demokratikoagoari begira ere gizarte eragile guztiek dute (dugu) zeregin garrantzitsua: euskal gizartearen eremu politiko eta sozial guztietan kultura eta ekimen gero eta demokratikoagoak bultzatzeko erronka. Kultura tolerantia eta ireki batek asko lagunduko du gatazka politikoari eta bortizkeriari irtenbide egokiak aurkitzen; hau da, arestian aipatzen genuen blokeo egoera gainditzeko.

Horrezaz gain, aurrerago aipatuko diren arrazakeria, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna eta ekonomia, besteak beste, kulturari estuki lotuta daudenez, esparru horietan ezartzen diren balio

84. *Euroeskualdearen* eskutik EBk apur bat laguntzen du estatuen mugak gainditzeko, politikoki baino gehiago ekonomiko eta kulturalki.

kulturalek demokrazian sakontzen lagun edo oztopa dezakete.

*Euskal kulturaren jatortasuna:* nola orekatu kultura propioen mamiak -euskararen gainean eraikitako kultura, besteak beste- eta horien iraupena, gure artean jadanik sartuak dauden (eta ugarituko diren) beste eredu kulturekin? Gure balio kultural propioei eutsi nahian, horietatik zer gorde eta zer aldatu behar dugu? Zenbait balore gorde nahi izan arren, kultura globalizatuak ez ote du irentsiko eta deuseztatuko gure elementu jator guztiak?

Euskal gizartearen azpisektore batzuek irekia-egoa egongo dira kanpoko korronteen besoetan erortzeko eta beste batzuek, aldiz, molde berri horiei bizkarra emateko. Kanpotik dator ororen aurrean selektiboak izan nahi dutenak, gai ote dira aukeratutakoa soilik barneratzeko ala nahitaez kultura globalizatu indartsuaren aurrean burua makurtu beharko dute?

*Kultura eta teknologiak berriak:* argi dago informazio teknologiek zer esan handia izan dezaketela gure kulturaren jatortasunak iraun dezan; batez ere kultura kontsumo-gaia bihurtu denetik. Gure kultura jetorreneteko adierazpenek kanpotik datozkigun eredu kulturalen aurrean arrakastatsu iraun ahal izateko aurrerapen teknologikoez baliatu beharko dute; osterantzean, kanpotik datorren eredu oroja-leak irentsiko gaitu.

Horiek guztiak dira, hain zuzen ere, herri bezala Euskal Herriak gainditu behar dituen erronka batzuk, baina ez bakarrik.

### 3.3. Euskara

Euskara normaltzeko asmoei eutsiz eta gure hizkuntzak bizi duen egoera gazi-geza kontuan hartuta, ondoko erronkak azpimarra daitezke:

*Eskarmentuaz baliatu:* emankorrek direla frogatu diren esperientziak oraindik aplikatuak izan ez diren lurralde eta eskualdeetara hedatu.

*Ume eta gaztetxoak lehenetsiz:* bizirik dirauen hizkuntzaren osasuna erabileran -ez ezagutza hutsean- oinarriken dela jakinda, euskalduntzen ari diren belaunaldi gazteak euskal hiztunen komunitatean txertatu, bestela alferrik galduko dira euskararako. Euskaldunen arteko euskarazko harreman sare trinkorik osatu ezean, ez da hizkuntza osasuntsurik izango.

*Plangintza gehi boluntarismoa:* gizarteak euskara berreskuratzeko asmoa duela agerian jarri den lurraldeetan, ahalegin horiek serioan hartu behar dira; hau da, inplikazio osoarekin eta plangintza zorrotz baten eskutik, ez norberaren borondetearen gain utzita. Izan ere, boluntarismo hutsean oinarrituta euskaldun askok ezin dute eguneroko euskararen erabilerari eutsi, ingurune erdaldunak ezartzen dizkien oztopoen aurrean. Euskaldunak duten euskararen aldeko sentimendu eta atxiki-

mendu horiek soilik bihurtuko dira erabilera aldeko gizarte-baldintzak aurkitzean (lanerako premia izatean, adibidez). Beraz, hizkuntza plangintza eremu guztietara eraman eta leku guztietan kementsu ezarri behar dira.

*Lekuan lekuko errealitateari erreparatuz:* ezberdina da gehiengo sozialak euskararekiko halako berotasunik adierazi ez duen lurraldeetan; horietan, euskara aintzakotzat hartzen duten indar guztiak bildu eta elkarlanean jarri beharko dira, ondoren, bideragarriak izan daitezkeen plangintzei ekiteko, beti ere euskararekiko distantzia gorde-tzen edo errezeloz ikusten duten taldeak ahalik eta gutxien ukituz (kontrako jarrerarik sor edo areago ez dezaten).

*Euskera eta teknologia berriak:* kulturari buruz esan bezala, informazio teknologiek asko lagun dezakete euskararen berreskurapenean: bai gure hizkuntza ikasteko edo bere *corpusa* normaltzeko, baita aitzindariak diren komunikazio-esparruetan lekua izateko eta euskal hiztunen komunitatea trinkotzeko, adibidez. Hortik kanpo ez dago etorkizunik.

### 3.4. Demografia

Gertatzen ari diren aldaketa demografikoek ondorio ekonomiko, sozial, politiko eta kulturalak dakartzate; baina, dudarik gabe, ekonomiak eta kulturak ere eragina dute demografian. Hona hemen aipagarrienak diren aleak.

*Ugalketa tasa baxua:* Gure ugalketa-tasa munduko baxuenetarikoa da eta belaunaldien arteko ordezkapena arriskuan jartzen du. Eta, horren ondorioz, lan-indarraren ordezkapena zailduko balitz finantzabide publikoak arriskuan leudeke; horregatik beldurra piztu da gizartean: nork ordainduko ditu gure zahartzaroko premiak?

Gainera, biztanleriaren aldaketei aurre egin ahal izateko politika publikoak moldatu beharra dago: osasun zerbitzu ugariagoak eta emakume eta adinekoei zuzendutako politika publiko berriak... Horiek, halere, finantzabide oparoak eskatzen dituzte.

Egoera ikusita, EAEko administrazio publikoak jaiotze-tasa areagotzeko neurriak bultzatu nahi ditu. Baina, 'Hirugarren Munduko' etorkinek gure lanindarra osa eta belaunaldi-ordezkapena bete badezakete, zergatik kezkatu?. Zilegia ote da jatekorik ez duten 'Hirugarren Munduko' pertsonen gure ateak itxi eta, aldi berean, ume gehiago bertan sortzeko neurriak bultzatu? Planteamendu horrek arrazakeria ezkututzen ote du?

*Emakumeen aldarrikapena:* Jaiotze-tasa oso baxua da, izan ere, 'superwoman' en aroa amaitu da eta emakumezkoek ez dute lan-zama guztia beraien gain hartu nahi. Eredu patriarkalaren aurka altxatu dira emakumeak, gizartean dagokien lekua aldarrikatuz.



Amatasuna, familia bizitza eta ethez kanpoko lana uztargarriak izatea nahi dute, horretarako beharrezkoak diren aldaketak bultzatuz: lanaren antolaketa ezberdina (lanaldi murriztua...), emakumezkoen zuzendutako politika publiko egokiagoak (haurtzaindegi gehiago eta erabilgarriagoak...), etabar.

Aldaketa horien ezean, batetik, emakumezkoen aukera familiar eta profesionalek mugatuak izaten jarraituko dute eta, bestetik, ugalketa-tasak ez dira haziko.

*Arrazakeriaren arriskua:* etorkin ugariak direnean euren kultura propioa gorde eta berrelikatu ohi dute, gizartearen baitan azpi-talde kultural bereiztuak eratuz; ondorioz, etorkin berrien eskutik aniztasun kulturala gero eta nabarmenagoa izango da gizarte horretan.

Duela hamarkada batzuk, Espainiako eskualdeetatik etorkin ugari iritsi zitzaigunean, xenofobia arrastoak ageri ziren eta 'maketoak' eta 'koreanoak' bezalako hitz baztertzailerekin izendatzen zitzairen kasu batzuetan; urte batzuen bueltan eta nahasketa kulturalaren eskutik halako adierazpenak desagertu dira.

Baina, gure izaerarekiko distantzia kultural handiagoa duten etorkin berrien aurrean hasi dira, berriz ere, kexuak entzuten: etorkinek euren kultur ezaugarri bereizgarriak (arabiarren janzkerari... etab.) eusten dietela, bertako ohiturei zor omen dieten errespetua gorde gabe. Eta hori da, hain zuzen, aniztasun kulturalaren aurrean lehen aipatzen genuen ahulezia: euskal gizarteak ezberdina dena onartzeko duen zailtasuna.

Erronka hau da: talde kulturalen arteko jarraia xenofoboak ekiditea elkarrekin bizitzea posible izan dadin, besteen ezberdintasun kulturalak onartuz eta errespetatuz. Osteran, Europako hainbat lekutan bezala, gure artean ere xenofobia hedatuko da.

Horregatik guztiagatik, prebentzio lanetan ares-tian aipatzen zen ezberdintasunarekiko jarrera kulturala irekiak asko lagunduko luke.

### 3.5. Ekonomia eta ingurugiroa

*Ekonomia sendoaren premia:* Herri hau biziko bada, ekonomia osasuntsua behar duela ez dugu duda izpirik, eta bide horretatik aurrerapauso sendoak ari gara ematen.

Maila ekonomikoari eusteko garapen teknologikoak duen garrantzi estrategikoa planteamendu unibertsalak izan arren, gurea bezalako herri txiki batentzat oraindik are garrantzitsuagoa izan daiteke:

“A largo plazo, el progreso tecnológico representa una (sino la) fuerza motriz más importante responsable del nivel de productividad, de empleo, de vida y de bienestar social”. (Jaureguizar 2001: 133).

Lehengaietan aberatsak ez garenez, giza-baliabideengan ez ezik ezagutza eta teknologia berrietan ditugu gure aukera eta erronka.

*Ekonomia neurritz kanpoko balioa:* halere, makroekonomiaren adierazleak sakralizatuak daude mendebaldeko gizarteetan, eta hazkunde ekonomikoa gizarte guztietako botere gehienaren lehen-tasun itsua da.

*Etenik gabeko garapen-eredua* ez da xede nagusia makroekonomian soilik; gizabanakoaren artean ere guztiz arrakastatsua da eredu ekonomiko hori, bera baita kontsumismo erakargarria eta salhestezina bermatzeko ezinbesteko funtsa.

Alabaina, premia ekonomikoak asetzeko beharrezkotzat jotzen badugu ere, hazkunde ekonomikoa basatia eta kontsumismoa dira gure gizarteari iparra markatu behar dioten xedeak? Ezezkotan, nola libratu geure burua -herri eta pertsonak bezala- korapilo itogarri horretatik?

*Lan merkatuaren erronkak:* geroak dakarzkigun berezitasun eta mehatxuak ugariak dira; hona hemen aipagarrienak:

- Segurtasunik eza: aldakuntza teknologikoaren eskutik ekonomiaren parametro nagusiek ere azkar aldatuko dute, hainbat arlotako gainbehera eraginez.

- Etengabeko prestakuntza: ekonomiaren aldaketa bizkorrek lan-indarraren etengabeko prestakuntza eskatzen dute.

- Bazterketa arriskua: lana denon eskubidea omen da, baina praktikan ez da horrela; hazkunde ekonomikoak ez du denontzako lanik sortzen eta lan-merkatuak eskatzen dituen baldintzak gero eta zorrotzagoak dira. Baldintzok lan-bazterketa eta pobrezia iraunkorragoak areagotuko dituzte, bereziki kaltetuenak ohi diren gizarte talde botzuegan: emakumeak, gazteak, langabetu adintsuak...

*Ingurugiroaren hondamena:* Garapen jasangarriaz hitz egiten da, baina etenik gabeko hazkunde ekonomikoari eusten diogu; posible ote da jokaera horrek irautea ingurugiroa kaltetu gabe?

- Gizarte eragile eta agintari asko gure amalurrak jasaten dituen erasoaz ondo jabetu dira; baina, zenbateraino izan daitezke eraginkor kontzientzia eta egitasmo politiko hutsak eredu ekonomikoaren oinarriak aldatzen ez badira?

- Mugimendu ekologistak ekoizpen eta kontsumo joerak aldatzeko eskatzen du; azken finean, eredu ekonomiko berri bat eratzea. Baina, dugun eredu gure zibilizazioaren zutabe nagusia denez eta herri bakoitzaren ekonomia egoera globalari lotuta dagoenez, posible ote da aldaketa herrialde batean gertatzea, mundu mailan nagusitzen ez bada?

*Ezberdinkeria ekonomikoa:* Gizarte adierazle orokorrek, oro har, lehenengo munduan kokatzen

gaituzte –bete betean ez bada, oso gertu–; baina, lehenengo mundu horren baitan laugarren mundua ere bada, eta Euskal Herria ez da salbuespena.

Lan banaketaz hitz egitera iritsi bada ere, aberastasunaren banaketa tabu handia da botere guneentzat, nahiz eta...

- ...ezberdintasun ekonomikoak giza eskubideak zapuzten dituen: behartsuak sortzen ditu eta ezberdintasun sozial gehien oinarrian dago. Bestalde, benetako justiziak berdintasun ekonomikoan du abiapuntu.

- ...sistema politikoa demokratikoa izango bada, berdintasun ekonomikoan oinarritu behar duen; bestela, ezberdintasun ekonomikoak sistema politikoan eragiten du, ondorioz berdintasun politikoa eta demokrazia murriztuz.

- ...gure jardun ekonomikoak munduko 'Iparren' eta 'Hegoaren' arteko jauzia eta injustizia sakontzen duen.

Euskal Herri zuzena, bidezkoa eta orekatua eraikitzeko asmotan, ez dugu aberastasun ekonomikoaren egungo banaketa desorekatua auzitan jarri behar?

Bukatzeko, gogorarazi behar dugu Gizarte Mugimendu Berriei Castells-ek ematen zien protagonismo handia; eta politikan herrigintzak joka dezakeen papera arestian aipaken genuen bezala, premiazkoak zaizkigun gainontzeko aldaketetan ere gizartearen eginkizunak funtsezkoa behar du izan. Hala bedi.

## ERABILITAKO BIBLIOGRAFIA

@EUSKADI (2001) Euskadi eta Interneteko informazio bulletina 78.

ARRIAGA, Mikel eta José L. Pérez Soengas (2000) *La prensa diaria en Euskal Herri (1976-1998)*. Leioa, Euskal Herriko Unibertsitatea.

ARZELUS, Ander (2001) 'Baiona-Donostia Euskal Euroherria', Lurraldeen interpretazio berri bat. *Euskaldunon Egunkaria (2001-7-26)*.

ASURMENDI, Mikel (2001) Hizkuntz Kontseilua euskarren hauspea izanen ate? *Argia (2001-7-22)*.

AZURMENDI, Joxe (1998) *Oraingo gazte eroak*. Irun, Luma.

CASTELLS, Manuel (2001) Estreinako hitzaldia, VII Congreso Español de Sociología Salamanca 2001-09-20. Kongresuko materialak (CD ROM).

CHAMBAZ, Chistine eta Bernard LEGRIS (1997) *La géographie du nivel de vie: evolutions recentes*. INSEE (<http://www.insee.fr/fr/recherche/rechercher.asp>).

ELLAKURIA, Pello (2001-7-10) <http://elcorreodigital.com>

EUROSTAT (2000) *Regions: Annuaire atastistique 2000*. Commission Européenne. Brusela.

EUSKO JAURLARITZA, NAFARROAKO GOBERNUA & EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA (1997) *Euskararen Jarrailpena II. Euskal Herriko Soziolinguistikazko Inkesta 1996*. Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernu eta Euskal Kultur Erakunde (argitaratzaileak).

EUSKO JAURLARITZA (2001) *Gazte.doc*, 5. (2001ko uztaila, 5. Zk.). (Kultura saila).

EUSKO JAURLARITZA (2000A) *Encuesta de pobreza y desigualdades sociales 2000*. (Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza saila).

EUSKO JAURLARITZA (2000B) *EAEko Ingurugiro Estrategiaren Agiria 2000-2012*. (Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila).

EUSTAT (1999) *Ikerketa zientifiko eta garapen teknologikoko jardueri buruzko estatistika 1998* (<http://www.eustat.es/varios/informes/inf799.pdf>).

EUSTAT (2001) <http://www.eustat.es/euskara/prensa/notas.asp>

EUSTAT-INSÉE-NAFARROAKO GOBERNUA (2000) *Euroeskualdea 2000* (<http://www.eustat.es/>).

GALBRAITH, John Kenneth (1992) *La cultura de la satisfacción*. Barcelona, Ariel.

GALLASTEGI, Mari Carmen (2001) *Del hierro al titanio. Hermes. Pentsamendu eta historia aldizkaria*, 1. Sabino Arana Kultur Elkargoa.

GARRIDO, José Antonio (2001) *La riqueza de compartir. Hermes. Pentsamendu eta historia aldizkaria*, 1. Sabino Arana Kultur Elkargoa.

GURRUTXAGA, Ander (2001) *Incertidumbres del nacionalismo institucional. Hermes. Pentsamendu eta historia aldizkaria*, 1. Sabino Arana Kultur Elkargoa.

HAINBAT EGILE (2000) *Etorkizuna Aurreikusten 99: Euskal Herriko gaztetxoak eta euskara*. Gasteiz, I. Martínez de Luna (argitaratzailea).

INNERARITY, Daniel (2001) *¿Tiene futuro el nacionalismo? Hermes. Pentsamendu eta historia aldizkaria*, 1. Sabino Arana Kultur Elkargoa.

JAUREGUIZAR, Joseba (2001) *El cambio tecnológico. Hermes. Pentsamendu eta historia aldizkaria*, 1. Sabino Arana Kultur Elkargoa.

JUARISTI LARRAÑAGA, Patxi (2001) *Euskal Herria globalizazioaren aurrean*. Bilbao, Euskaltzaindia/BBK Fundazioa.

KULTURA SAILA (2000) *Euskadiko Gazteak 2000*. Eusko Jaurlaritza.

LÓPEZ ADAN, Emilio (2001) *Zergatik irauten du borroka armatua? Argia*, 2001ko uztailak 8.

MARTÍNEZ DE LUNA, Iñaki (2000) *Influencia de los movimientos sociales en la pacificación de Euskadi. Inguaruak. Soziología eta zientzia politikoaren euskal aldizkaria* 26.

MUEZ ORORBIA, Miguel Ángel (2001) *El referéndum como indicador de democracia. El periódico de Álava*, (2001-9-02).

- Euskal Herriko gizarte aldakuntzak eta etorkizuneko erronkak
- PRADIER, Pierre (2001) Europa behar dugu. *Euskaldunon Egunkaria*, 2001-7-8.
- PROSPEKZIO SOZIOLOGIKOEN KABINETEA (2000) *Sociómetro Vasco. Otoño 2000*. ([http://www.euskadi.net/estudios\\_sociologicos/indice\\_e.htm](http://www.euskadi.net/estudios_sociologicos/indice_e.htm)).
- PROSPEKZIO SOZIOLOGIKOEN KABINETEA (2000B) *Sociómetro Vasco. Invierno 2000*. (<http://www.euskadi.net/estudios-sociologicos/indice-e.htm>).
- PROSPEKZIO SOZIOLOGIKOEN KABINETEA (2001) *Iritziak*, 1. ([http://www.euskadi.net/estudios-sociologicos/indice\\_e.htm](http://www.euskadi.net/estudios-sociologicos/indice_e.htm)).
- PROSPEKZIO SOZIOLOGIKOEN KABINETEA (2001B) *Sociómetro Vasco. Primavera 2001*. ([http://www.euskadi.net/estudios\\_sociologicos/indice\\_e.htm](http://www.euskadi.net/estudios_sociologicos/indice_e.htm)).
- PUJOL, Jordi (2001) Identidad, cohesión y cambio social. *Hermes. Pentsamendu eta historia aldizkaria*, 1. Sabino Arana Kultur Elkargoa.
- REKONDO, Julen (1999) Problemas y retos ambientales de la CAPV. *Inguruak* 24.
- TORREALDAI, Joan Mari (2001) Hizkuntz politikaren auzia. *Jakin* 123/124.
- UNZETA, Alfonso (2001) El proceso de institucionalización política en el País Vasco. *Hermes. Pentsamendu eta historia aldizkaria*, 1. Sabino Arana Kultur Elkergoa.
- UPV-EHU (2001ko Maiatza) Euskobarometro. Departamento de Ciencia Política. ([http://www.ehu.es/cpv-web/paginas/euskobar\\_ultimoeusko.html](http://www.ehu.es/cpv-web/paginas/euskobar_ultimoeusko.html)).